

t tipi-ttapa



ALMANDOZTARRAK

HARROBIA

HANDITZEAREN KONTRA

Almandozko Herriak errekurtoa sartu du Nafarroako Gobernuan erranez proiektuak arrisku bizian jartzen dituela hilerria eta baita zenbait aska, iturburu eta kanalizazio ere. / 32

ONDIKOL

Ikusgarritasuna emakumeentzat

Martxoaren 8aren bueltan, eskualdeko hamar emakumeren testigantzak bildu ditu T TIPI-TTAPAK. / 24

SINADURAK

	LUCIA ETXEBERRIA ARANAZ / 3		AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
	GABI GOIA IPARRAGIRRE / 4		ELURRE IRIARTE BAÑEZ / 4



Beti Gazte sokatira taldea Ipar Irlandara doa munduko txapelketara / 43



Hauteskundeen ondotik Bernard Elhorga da auzapez Senperen / 31

Izokina arrantzatzea debekatua izanen da Bidasoan sasoi honetan / 24

Oronozko Lanbide Heziketa institutuko proiektuaren idazketa esleitura / 30



ZOZKETA / 52


ttipi-ttapa

LIDERRAK


gure eskualdean



baita azterketa egiterakoan
CIESeK Nafarroa Garaiko
mendialdean hartu duen
111 udalerrien eremuan ere.



ADINAREN ARABERA



IKASKETA MAILAREN ARABERA



SEXUAREN ARABERA



%50,8
EMAKUMEAK



%49,2
GIZONAK



NIRE TXANDA

LUCIA ETXEBERRIA ARANAZ

Gure ama

Nahiz eta ez diodan nik eskatu amari, gure ama izan zedin, bere esku egon den guztia egin du sekula ezerk ez pentsatuarazteko beste amarik nahi nuenik. Baina gure ama, ama izateaz gain, Marian da. Oraindik ikasi beharra dudana da ordea, amaz haratago Marian gisa ikusten, bere osotasunean. Ez baikara haren seme-alabak izan gure amaren bizitzaren sorrera. Ez gara, edo ez nuke izan nahi, bere bizitza egituratzen duena, ezta bere identitatearen elementu definitzailea ere. Lagunekin edo inguruarekin harremantzerakoan pertsonaren eta egoeraren arabera gure jarrera moldatzeko gaitasuna daukagu. Pertsona bakoitzak haren berezitasunak dituela ulertzen dugu, horietako asko denborarekin aldatzen direnak. Baina, nekez begiratzen diot modu berdinean gure amari. Rol bat atxikitzen diot, jarrera bat, betebeharrak batzuk, adin zehatz bat edota identitate mugatu bat; urtez urte ez direnak apenas aldatzen. Honen ondorioz, alaba bezala galdera bat eginbeharren aurkitzen naiz. Begi-bistatik galdu gabe, norbanakoen jarreraz gain, egiturazko elementuek baldintzatzen gaituztela eta nire jokamoldeek soilik ez dutela egoera aldatuko, nire eta gure etxekoen zein jarrerak kentzen diote denbora eta gogo gehiago amari, gure ama izateaz gain, Marian izateko?



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Aldapan gora, aldapan behera

Huntzakoek azken(aurreko) agurra iragarri dutenean hasiko dira gure inguruan kirolariak talde honek hain ezagun egin zuen doinu eta letraren erritmora maldan goiti eta beheiti lasterka: asteburu honetan Senperen eta Lesakan, agudo Beran, Arantzán, Goizuetan, Leitza... Nork zioen mendiak lasai dastatzeko direla? Bakoitza bere erritmora!

NABARMENTZEKOAK



**DOLORES RETEGI
TELLETXEA**
IGANTZIN 100 URTE



AINHOA ETXEGARAI
EUSKAL HERRIKO
TXAPELDUN

Ehun urte bete zituen igantziarrak otsailaren 20an eta hainbat opari hartu zituen familiaren, Arkupeak elkartaren eta udalaren eskutik urtebetetze egun berezian. Segi bixkor!

Joan den urtean Nafarroako txapeldun izan ondotik, aurtien lehen aldiz Euskal Herriko txapeldun izan da kirolari beratarra lokotx biltzen. Marka berria ere egin zuen (7.07).

GIBELERA BEGIRA



2013-02-28 · TTIPI-TTAPA · 585 zk.

Larreko bertsolariari omenaldia

2013ko otsailaren 5ean zendu zen Jean Pierre Soudre *Larreko* senpereko bertsolari maitatua, eta lau egun beranduagoa, otsailaren 9an Senpereko Jondoni Petrikari elizan egin zioten omenaldia. 1924ko irailaren 12an sortu zen Larreko, eta bertsuazaleasuna gazte gaztea zelarik etorri zitzaion. Ehunka bertsu asmatu eta idatzi zituen hainbat gairen inguruan, eta tartean sari batzuk ere lortu zituen. Hainbat kantarik eta bertsolarik kantatu zuen Larrekoren ehortzean, tartean Jean Louis Hariñordoki Lakak eta Fermin Mihurak. Ondorengo bertsorekin agurtu zuten: «Senpertarrentzat maiz baizinu en zerbait polit botatzeko/ hainbeste urtez ari izan zira nola egin eskertzeko?».



erran.

TOKIKOM



Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Kontaktok bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttapi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantz Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantz Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantz
Iturralde, Arantz Gamio, Jaione
Aritzegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberriagarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberría, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizuetan, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerrekako	45€
Leitza	36€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	100€
Amerika eta Australia	152€



KOLABORAZIOAK

GABI GOIA IPARRAGIRRE

Elkar zaindu dezagun

Gogoan dut orain dela urte sail bat nire seme-alabak nerabeak zirenean eta lagunekin besta egitera etxetik ateratzerakoan erraten nien esaldia: «elkar zaindu ezazue...». Garai hartan barrenak eskatzen zidan desio bat bertzerik ez zena, gaur egun, sozialki zabaldu den kezka eta erabat plazaratu den ideia bilakatu da. Zaintza, gizarte zerbitzuen kezka nagusienetakoa bihurtu da, bertso txapelketako gaia ere bai, eta berehala hauteskunde atarian gaudenez, alderdi politikoen agendan agertuko den esparru garrantzitsua ere.

Gizakiok zaurgarriak gara, bizitzako momentu jakin batzuetan zaintza premiak ezinbestekoak ditugu (haurrak garenean, eritasunean, behar bereziak ditugunean), baina, ongi gaudenean ere, eguneroko beharretan, arrisku egoeretan, zapalduak sentitzen garenean gure ondokoaren edo komunitatearen zaintzak konfiantza eta babesa ematen digu.

Zaintza gizakion ongizaterako ardatza da. Alde batetik, ikuspegi sozialetik, zaintza eskubide kolektiboa da, denon eskubidea da eta erakunde publikoen eginkizuna izan behar du herritarrek duintasunez zainduak izatea. Zaintza lanak aitortu behar ditugu, prestigio gutxikoak izan dira bai familian bai gizartean eta lan mota honek gizarteari egiten

«ZAINTZAK KONFIANTZA ETA BABESA EMATEN DIGU»

dion ekarpena aitortu behar litzateke. Gaur egun familiak dira zaintza lanen zama nagusia dutenak eta honek desorekak sortzen ditu. Eta familia barrenean emakumeak dira zaintza lan gehienez arduratzen direnak

honek dakarren karga bidegabeba jasanez. Ezin ahanzi gure adinekoen zaintzan emakume migratuek egiten ari diren lan ikaragarria, hauen bizi eta lan baldintzak zainduak eta errespetatuak behar lukete denon onerako. Zaintzaren gaia erdigunera ekartzeko badago mugimendua bai komunitatean bai erakundeetan, baina, oraindik aunitz dago pentsatzeko eta egiteko. Bertzalde, arlo pribatuan, denok dugu ardura eta zeregina elkar zaintzearen alorrean. Ttiki ttikitatik familian, herrian, eredu onak izanez gero, elkar zaintzen ikasi egiten da. Gure anai-arrebaz, gure txakurraz edo lagunaz arduratzen bagara haurrak garenean, adinarekin inguruko zaintzari (gurasoak, bikotea) garrantzia emanen diogu eta beraien zaintza ahalik eta hobekiena antolatuko dugu.

Gizarte duin eta justu baterako elkar zaintzea izugarrizko balioa da, bata berteazari laguntzeak parekidetasuna sortzen du, biolentzia gutxiagotzen du eta herritarren arteko bizikidetzak hobean laguntzen du.



ELURRE IRIARTE BAÑEZ

Imajinatu erasotzailea

Imajinatu autobus geltoki baten kanpo aldean zaudela, Iruñekoan adibidez, edo Baionako tren geltokian, berdin du. Jende andanaren artean bikote bat ateratzen dela, neska-mutikoak, eskutik hartuak. Imajinatu halako batean ohartzeko zarela ez daudela eskutik hartuak, mutikoa dela neska eskumuturretik hartua duena. Neskak alde batera joan nahi du, mutikoak bertzeri eta honek tira egiten dio, aginduzko hitzekin. Alarma pizten zaizu eta ez da itzaltzen.

Zeure burua ikusten duzu nola erreakzionatu ez dakizula, zerbait egin nahi duzula baina ez dakizula zer, deus egin gabe ez baituzu gelditu nahi. Imajinatu bat, bi, hiru kontatzen duzula eta hurbiltzen zarela beraingana eta neskari galdetzen diozula ea laguntzarik behar ote duen. Egun osoan zurekin izanen duzun begiradarekin erantzuten dizula, ezetza edo baietza erran gabe. Erreza da imajinatzea eztabaida duzula eskumuturretik hartua duen mutikoarekin eta berarekin ez zarela ari erraten badiozu ere, oldartzen zaizula eta handik lekutzen direla. Odola borborka duzula eta bikotea zeure begi bistatik desagertzen dela ikusten duzula.

Imajinatu, gehiago ikusten ez badituzu ere, neskaren begirada zeure burutik ezin kenduz zaudela eta ondotik pasatuko zaionaren irudiak hasten zaizkizula buruan: akaso

«ZER GEHIAGO EGITEN AHALKO GENUKE EGOERA HAUETAN?»

neskak *aski da!* erranen dio eta harreman toxikoarekin akituko du, bakoitzak bere bidea eginez. Zoritxarrez imajinazioak bertze bide bat hartuko du, afera ikusita sinesgarriagoa da, eta irudikatu nahi ez dituzun

egoerak bata bertzearen ondotik agertuko zaizkizu buruan. Imajinazioak eraso batean akituko duela pentsatzerat eramaten zaitu. Arratsean, etxeko goxotasunera sartzen zarelarik, neskaren begiradarekin segituko duzu eta momentu horretan zertan egonen den pentsatzen hasten zara, eta zaila aizuz imajinatzea bera ere etxeko goxotasunean.

Akaso biharamunean prentsan eraso baten berri leituko duzu, kasik egunero bezala, eta berriz ere begirada lako zaizu burura. Nahiko egin ez izanaren sentsazioarekin hasiko duzu eguna, gauez pentsamendu horiek loa usteldu ez badizute behinik behin, eta ez duzu luzez burutik kenduko.

Eta egun osoan galderak izanen dituzu buruan, bata bertzearen ondotik: zer gehiago egiten ahalko genuke egoera hauetan? Geltokiaren kanpoan direnen artean erasotzailearen kontra elkartu? Nola egin beharko genuke halako (eta bertzelako) erasoak salatzea ailegatu behar ez izateko? Erran nahi baita, zer egin beharko genuke gizonak erasotzera ez ailegatzeko? Nola egin beharko genuke begirada horiek berriz ikusi behar ez izateko? Eta erantzun gutti.

Begiradak autodefentsa feminista beharrezkoa dela gogoratuko dizu segur aski. Gizonezkoaren oldarraren kontra zer behar den, oraindik ez dugu hain argi.

11 GALDERA LABUR

MAIDER OLASO PASTORALEKO ANTZEZLE SARATARRA

«Pastorala esperientzia ederra izan da»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Ez da erraza niretzat. Galdera hori nire lagun eta kideei pautatu behar zaie.

Zein dira zure zaletasunak?

Lagunekin kantatzea, dantzatzea, erakusketetara joatea eta ezker eta eskuin ibiltzea herri desberdinak bisitatuz.

'Maddiren trajeria' pastorean aritzen zara. Zein da zure papearra?

Bi pertsonaia antzezten ditut: Ximena neskaila eta Bubarro basa sagua. Bukaeran, hiru lagunekin batera azken perezidua ematen dut ere.

Zergatik animatu zinen parte hartzera?

2010ean Saran egindako *Oroitzapenetik bidaiarat* ikusgarrian parte hartu nuen, baita

2016an egin zen Kabalkadan ere. Pastorala proiektu ederra eta interesgarria zela atxeman nuen, Xaretako lau herriak biltzeko ideia.

Lehen aldia da horrelako ikus-kizuna egiten dela Xaretan?

Lehen aldia da lau herrien artean pastoral bat egiten dela, baina oroitzen naiz duela 30 bat urte uraren inguruko ikusgarri bat egin genuela Donibane Lohizuneko Jai-alaien, herri batzuk kantuz eta bertze batzuk antzerkia eginez. Pastoral esperientzia ederra izan da, ezagutza berriak egin ditut eta taldean elkartasun handia sortu da.

Lan handia izan da?

Bai. Hastapenean hamabortzetik behin biltzen ginen eta bukaeran igandero. Egun osoa



elkarrekin pasatzen genuen; lanean, bazkaltzen, irrian eta marmarrean... lan handia bazen ere, merezi izan du. Batzuetan etxetik ateratzea zaila zen, baina errepika lekura ailegatzean zer plazerra denak ikustea!

Nolako harrera izan zuen?

Emanaldien ondotik goresmen handiak izan genituen herri-tarregandik eta biziki kontent gara!

Martxoan Bergaran errepikatuko duzue emanaldia. Gogotsu?

Bai, emanaldi horri esker partaide guziak berriz ikusten ari naiz.

Bertze herriren batean aritzeko asmorik duzue?

Ez, azken emanaldia dugu. Beraz, ez baduzue oraindik ikusi, zatozte Bergarara martxoaren 25ean!

Zure asmoak epe motzera?

Bergarako pastoral ahal bezain ongi ematea.

Eta epe luzera?

Taldean sortu dugun lotura eta harremanak luzez atxikitzea!



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Mairidireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak

Emakumeen ahotsa aditzeko garaia

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen da martxoaren 8an eta egun horren bueltan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte eskualdeko zenbait herritan. Baina emakumeen eskubideak egunero aldarrikatu behar dira, eta hamar emakumeren egunerokoa ezagutu du TTIPI-TTAPAK

TTIPI-TTAPA

Idazlea, ekonomilaria, musikaria, abeltzaina, zientzialaria... gero eta ikusgarritasun handiago dute emakumeek gizartean, baita orain arte nagusiki gizonenak izan diren eremuetan ere. Presentzia izateak, ordea, ez du beti bermatzen tratatu berdintasuna izatea. Martxoaren 8aren bueltan TTIPI-TTAPAK eskualdeko hamar emakumeren testigantza bildu du. Beren lanbideari buruz mintzo dira, baina baita emakume izateak

kasu batzuetan eragindako oztopoei buruz eta berdintasunerako egin beharreko urratsei buruz ere.

Hain zuzen, eskualdean egitarau zabala antolatu dute batean eta bertzean Nazioarteko Emakumearen Egunari begira. Asteazkenean, martxoaren 8an egin dituzte eskualdeko herri aunitzetan kontzentrazioak, bai erakundeek deitutakoak, eta baita mugimendu feministak antolatutakoak ere. Baina, egun horretatik harago ere bertze-

lako jarduerak izanzen dira heldu den egunetan.

Martxoaren 9an, ortzeguna Mijo Lizarburuk *Lodifobia eta estetikaren esklabotza* hitzaldia emanen du 18:30ean Elizondoko Arizkuneko hitzaldi aretoan. Larunbatean, hilaren 11n, Lesakan Emakumeen afaria egingen dute mugimendu feministak antolatuta. Ezkurran, aldiz, 11:00etan medi itzulua egingen dute emakumeek, eta 14:00etan paella jatea. Biheramunean, hilaren 12an,

Bortzirietako Emakumeen XIII. Mendi Martxa egingen dute Arantzan, 09:00etan abiatuta. Ondotik, 14:00etan bazkaria izanen dute. Leitzan, berriz Madrilgo Teatro en Vilo konpainiak *Hoy puede ser mi gran noche* antzezlan egingen du.

Egitarrak segida izanen du asteartean, martxoaren 14an. *Elkar zainduz, zaintza eskubide kolektiborantz* hitzaldia emanen dute Emaginek kideek Lesakako Koskontako Bideko Aretoan. Martxoaren 17an, aldiz, hitzordu bikoitza izanen da. 18:00etan Igantzin 'Amatasunak feminismotik hitzaldia izanen dute udaleko goiko solairuan, eta Iruritan, aldiz, *Ainarak* dokumentalaren emanaldia 19:00etan Gizarte Bilgunean. Bukatzeko, martxoaren 31n autodefentsa feministako tailerraren bigarren saioa egingen dute Leitzan 16:30etik 19:30era.

«Ahizpatasuna eta borroka inoiz baino garrantzitsuagoak dira»

IONE GOROSTARZU ETXEBESTE IDAZLEA

Leitzan bizi den idazle beras-tegiarra da Ione Gorostarzu. 2012an *(Des)egiten* poesia liburua argitaratu zuen, eta 2019an *Ez da erditzea*, amatasuna hizpide duen liburua; «nire bizipenetatik eta gorputzetik idatzia, gaiari buruz inori leziorik emateko asmorik gabe baina oso kontziente, pertsonala politikoa dela». Urteetan, «ama hitza hizki larritz idatziz zaigu, nolako ama izan behar dugun erakutsiz, eta emakume asko dira amatasun edo ez amatasun askeago baten bila ari direnak». Izan ere, «ezin dugu pentsatu etxetik kanpo lan egiten

dugulako edo aitatasun bajak luzatu direlako berdintasunera ailegatu garenik. Emakumeon gaineko presioa ez da desagertu: adin batean ama izan behar duzu, titia eman baina titirik gehiegi erakutsi gabe, lan munduan aurrera egin desordutan etxetik kanpo ibili gabe, ama izan aurreko figura fisikoa berreskuratuz...». Literaturak «munduari beste begi batzuekin begiratzeko aukera» ematen dio. Hala ere, «oso idazle gutxi bizi dira idazketatik. Nik argi daukat nire ibilbide profesionala irakaskuntzan dagoela, eta horrelaxe izatea nahi dut».



UTZITAKOA

Azken urteetan, «euskal letretan sortutako ahotsik interesgarrienak emakumeenak izan dira; Eider Rodriguez nobelagintzan, Uxue Alberdi fikzioan eta saiakeran, Uxue Apaolaza ipuingintzan, Castillo Suarez eta Miren Agur Meabe olerkigintzan... beraien lekua egiten ari dira». Hala ere, «emakumezkoek beti bikoitza demostratu behar dugu». Gainera, «gizon askok

oraindik uste dute gure lanetan 'emakumeen kontuez' bakarrik ari garela. Aldiz, gizonezkoen gaiak neutroak dira nonbait, denoi interesatu behar zaizkigunak». Honez gain, «azken aldian eta sarri tonu iraultzailek mozorrotua iristen ari den feminismoaren aurkako diskurtso oldearen aurrean, ahizpatasuna eta borroka inoiz baino beharrezkoagoak direla» dio Gorostarzuk; «martxoaren 8a indar erakustaldia da, garrasia, leherketa, egunerokotasunean bidea egiten jarraitzeko». Etorkizuneko erronkak finkatzeko, «gaiak gehiago dakiten adituak irakurritz eta entzunez formatzen saiatzen naiz. Eztabaida ugari mahai-gainean daude: zaintza, soldata arrakala, prostituzioa, haurdunaldi subrogatua... eta zapalkuntza modu berriak etorri ahala, erronka berriak sortuko dira».

«Oraindik ere lan egin behar da berdintasun osoa lortzeko»

BEGOÑA URRUTIA JUANIKOTENA EKONOMILARIA

Nafarroako Gobernuko Aurrekontuetako, Ondareko eta Politika Ekonomikoko zuzendari nagusia da Begonia Urrutia amaiurtarra. Ekonomia eta Ogasun Departamentuan. 2015eko gobernu aldaketaz geroztik dago postu horretan, nahiz eta 1986tik ari den Nafarroako Gobernuan lanean, bereziki toki administrazioarekin loturiko postuetan: atalburu izan zen lehenik eta zerbitzuburu ondotik. Ekonomilaria da ikasketaz, eta oposizio bidez lortu zuen administrazio



NAFARROAKO GOBERNUA

publikoan plaza 1986. urtean. Nafarroako Gobernuan lanean hasi zelarik ekonomilarien artean erdiak emakumeak zirela oroitu du, ez ordea ber-

tze alor batzuetan, ingeniarietan adibidez. Gaur egun, gainera, berak lan egiten duen Ogasun Departamentuan, adibidez, oposizio bidez lanpostua lortzen duten «gehi-nak» emakumeak direla dio. Goi kargudunen artean ere emakumeak gero eta gehiago direla nabarmendu du: «Kontziliazioa dela eta, emakumeek garai bat izaten dugu zailagoa izaten dena goi karguak hartzea, lan horiek dedikazio osoa eskatzen dutelako, baina hori aldatzen ari da. Orain kontsei-

larien erdiak dira emakumeak, eta zuzendari nagusien erdiak ere emakumeak gara. Administrazio publikoan berdintasuna badagoela uste du, nahiz eta ñabardura bat ere egin duen: «Oraindik ere aunitzetan emakumeak izaten dira lan baimenak edo lanaldi murriztuak eskatzen dituztenak, eta horrek diskriminazioa eragiten du». Berdintasuna espresuki lantzen den alorra dela ere kontatu du: «Orain sail guztietan dago berdintasun teknika-ria eta lantzen dira berdintasun planak. Hori duela urte batzuk pentsaezina zen. Hala ere argi dio: «Oraindik ere lan egin behar da berdintasun osoa lortzeko».

«Herri kiroletan bideia irekitzen ari da»

NEREA SORONDO MARITORENA AIZKOLARIA

Duela 14 urte hasi zen Nerea Sorondo beratarra herri kiroletan parte hartzen; «lagun giroan probatzeko aukera ikusi genuen eta hasieratik gustatu zitzaigunez, hortxe gelditu ginen». Ibilbide «gora-beheratsua» izan du geroztik; «trontzan garai onak izan genituen eta irabazten hasi ginen. Gero gibelerago gelditu ginen, baina parte hartzen segitu genuen». Horren ondotik, bakarkako lanera pasatu zen: «aizkorarekin hasi nintzen, eta hor ere urte onak eta urte txarrak izan ditut. Hala ere, hemen segitzen dugu». Emakumeen egoera herri kiroletan «asko» aldatu dela dio; «duela urte batzuk juxtu xamar ikusten nuen, baina egia da probak egokitu dituztela jende gehiagorentzako. Harri-jasotzean, adibidez, lanak murriztu egin dira emakumeek parte hartu ahal izateko. Hasi ginen gutti horietatik ikusi zen emakumeak ere aritzen garela, eta geroz eta gehiago gara. Etorkizun ona ikusten diot». Bere kasuan, «emakumea izateagatik baino, bidea ireki gabe zegoelako izan da zaila hastea. Lehen emakumeak ez ziren plazaratzen, sokatiran normalizatuagoa zegoen baina bertze kirol aunitzetan ez. Bidea oraindik irekitzen ari da, eta normaltasunera ailegatuko da noizbait». Kiroletik kanpo ere «bide onetik goaz, baina aunitz dago oraindik lantzeko. Gehienbat amatasunarekin eta lan kontuekin ikusten da, emakumeak gehiago gelditzen dira etxean, pauso bat atzerago gaude. Kontzienteak izan behar dugu, bai emakumeak eta baita gizonak ere. Horretarako, norberak bere buruarekin, etxean, lanean... egin behar du lanketa».




UTZITAKOA

«Elkarlanean eramateko borroka da»

CLAIRE GRILLARD PILOTA ETA XISTERA EGILEA

Duela bi urte eta erdi hasi zen Claire Grillard saratarra Eskutik taldean pilotak josten. Kooperatiba muntatzean xisterak konpontzen hasi ziren, «eta laster osoki berriak egingen ditugu». Lanbide «sentsua» dela dio «gure tradizioetan oinarritzen baita, kultura eta eskulana uztartuz». Ogibidean «jende gutti» aritzen dela aitortu du, «baina bertze lanbideetan bezala, gogo baldin baduzu eta zeure buruari mugarik jartzen ez badizkiozu, zure tokia atxematen ahal duzu». Hortaz, «nire kasuan ez dut uste emakume izateak bidea zailagoa egin duenik. Nire izateko manera hala baita; helburu bat finkatzen dudanean, horretarako lan egiten dut sinpleki lortzeko». Bere lankide guztiak gizonak dira, «baina ez dute desberdintasunik egiten, ezta nik ere. Denak maila berean garela sentitzen dut». Hala ere, lanetik kanpo «eguneroko bizian kargak emazte eta gizonen artean ez dira beti orekatuak, nahiz eta garaiak aldatu diren eta jendea kontzientzia hartzen ari den. Nire kasuan lantokian eta etxean berdintasuna lortu dut. Aldiz, konturatzen naiz bertze batzuek bidea oraino luzea dela». Hortaz, «emazte eta gizonen arteko harreman zaharrak arlo guztietan aldatu behar dira, alde batera utzi behar da gizon-emazte konparaketa hori eta nortasun gisa pertsona lehenetsi behar da». Etorkizunera begira, «emazteak jendartearen bere tokia atxematea» da erronka nagusia, «baina ez gizonari kontra eginez, elkarlanean eramateko borroka baita. Ni baikorra naiz, aterabidea bakoitzak bere baitan duela pentsatzen dut».



MARC MITTOUX

«Geure buruan sinetsi beharra dugu»

LEIRE ORTUOSTE GARTZIA DONEZTEBEKO ALKATEA

Doneztebeko alkatea da Leire Ortuoste duela bi urte, Xanti Uterga aitzineko alkatearekin adostua, aurtengo alkatetza txandakatu baitute. «Ordura arte zinegotzi lanetan aritua nintzen, baina alkatetza pauso handia izan zen. Lidergoak errespetua sortzen zidan, nahiz eta aitzinetik Zubietako alkatea izana nintzen. Baina emakumeok gobernatzea modu naturalean gertatu behar da, beharrezkoa baita gu aintzat hartzea gizartean».



UTZITAKOA

Postu hauetako emakumeen egoera «geroz eta hobeagoa» dela dio; «eskualdeko alkatetzetan borts emakumeak gara. Hori bai, askotan udalera ezagutzen ez nauen norbait hurbiltzean, nire ondoan alkate ordeoa badago, bera gizonetzkoa, bera-ri egiten diote lehenengo hitza, alkatea bera dela ustez». Emakumeek «gehiago eskatzen diogu geure buruari, baina sinetsi beharra dugu, iruzurgilearen sindromea baztertuz eta behar bezain onak ez garela pentsatzeari utziz. Ezin dugu ukatu sistema androzentrikoan bizi garela, gizonezkoentzako egindako mundu batean». Berdintasuna «geroz eta hurbilagoa» ikusten du, «baina lan handia dago egiteko. Adibidez, Doneztebeko datuen arabera emakumezkoen langabezia tasak gizonetzkoena bikoizten du». Martxoaren 8ra begira «Nafarroako Gobernuak proposatutako lelorarekin bat egiten dut: *Zuregatik. Guztien-gatik*. Lanean ari garen emakumeak denontzat ari gara, gizarte justuagoa eta demokratikoagoa eraikitzen». Etor-kizunean «parekidetasuna lortzeko, heziketa parekidea sustatu behar da neska eta mutikoen artean».

«Emakumeon lana aitortu behar da»

AMAIA ITURRIRIA BARRENETXE ABELTZAINA

2019 hasmentan hasi zen Amaia Iturriria azpilkuetarra abeltzain lanetan: «Gartzai-nera bizitzera etorri nintzen bikotekidearekin, eta bere gurasoek azienda izan dute beti. Animalia kopurua jaustea pentsatzen hasi ziren, eta guk beti izan dugunez lurrari lotuta bizitzeko interesea, azienda hartzea erabaki genuen». Behiak, behor-rrak eta ardiak dituzte gaur egun, eta zuzeneko salmentan aritzen dira, «gainera, gasnategi bat egiten ari gara». Nekazaritza munduan, «etxeko negozioak izanda, orain arte emakumeen papera bigarren planoan gelditzen zen eta kanpora begira gizona bakarrik ikusten zen. Lanbidea profesionalizatu zelarik, aunitzetan gizonak kotizatzen zuten. Baina egoerari buelta ematen ari zaio, gero eta gehiago erakusten baita emakumeon lana». Hala ere, «nik ere balio dudala erakusteko beharra sentitu dut momentu batzuetan, ez bakarrik neska izateagatik; gazte hasi nintzen eta ez nintzen lehendik aritua. Orain ere egunero gauza berriak ikasten segitzen dut». Nekazaritza kanpo, «feminismoa gizartean pisu handia hartu duen mugimendua da. Neska gazteetan kristoren indarra ikusten dut, gure eskubideak defenditzeko grina dute». Egoera hobetzeko, «gure inguruko bidegabekeriez kontziente izan eta hausnartu beharko genuke, gizonak, emakumeak eta denok, eta antolatutako mobilizazioetan parte hartu. Estereotipoak alde batera utzi eta emakumeak urteetan egindako lana errekonozitu behar da. Memoria berreraikitzeak lagunduko digu etorkizunean hanka-sartze horiek ez errepikatzen».



UTZITAKOA

«Batzuetan emakumearen hitza ez dute hain serio hartzen»

AMAIA LUJANBIO GOIZUETA ZIENTZIALARIA

Ikerketan bide luzea egina du Amaia Lujambio Goizuetako zientzialariak. Iruñean egin zituen biologia ikasketak, Madril- en tesia eta 2010. urtean New Yorkera joan zen. 2015etik Monut Sinai ospitaleko Icahn medikuntza fakultatean bere ikerketa talde propioa dauka: Lujambio Laboratory. Bertan, gibeletako minbiziaren ikerketan dihardu. Laborategi propioa izatea «ordu askotako lanaren emaitza» dela dio, eta orain ordu gutxiago sartzen dituen arren, horiek «ardura handia»



AMAIA LUJANBIO

gokoak eta intentsuagoak» direla. «Harrotasuna eta ardu- ra» biak sentitzen ditu ikerke- ta taldearen arduradun izanda. Argi dio: «emakumeak gizonak


bezain onak dira zientzian, horretan ez dago desberdin- tasunik. Diferentzia kargu inportanteetan ikusten da, oraindik ere gizonak maizago ikusten direlako, nahiz eta emakumeak oso onak izan». Bere ibilbidean, emakume izateagatik oztopo haundirik ez duela izan dio, nahiz eta mikro- matxismoak badaudela dioen: «Gauza txikiak izaten dira, baina zeure buruari galdetzen diozu: hau niri gertatzen zait ni naizelako, edo emakumea naizelako? Batzuetan emaku-

mea bazara zuk esaten duzu- na ez dute hain serio hartzen». Berdintasunerako bidean zient- zian zer egin badagoela uste du: «Karrera zientifiko hastean ez dago emakumeen eta gizo- nen arteko desberdintasunik, baina, emakumeak haurrak izaten hastean horrek beti era- giten die beraiei, eta horrek eragiten du goi karguetan gizonak egotea». Martxoaren 8aren bueltan ere mezua luza- tu du: «Gizonak eta emakumeak gaitasun berdina ditugu, eta potentzial berdina badugu, soldatak eta aukerak berdinak izan beharko lukete. Borroka- tzen segitu behar dugu, eta denok dugu ardura».

«Oinarriak astindu behar dira, autokritika presente izanda»

OLAIA INZIARTE GORTARI MUSIKARIA

Ttikitatik musikarekin «harreman estua» eduki du Olaia Inziarte oronoztarrak, «trikitixa eta panderoarekin hasi nintzen esperimentatzen, baina amatxik gitarra bat oparitu zidanean hasi zitzaidan kantuak sortzeko ezinegon». Talde aunitzetan ibili eta hainbat genero probatu ondotik, bakarlari gisa dabil orain; «baina maite ditut hortik kanpokoak ere, jendearekin musikalki jostatzea edo mahaiondotan trikitixa jotzea». Musika «afizio izatetik ofizio izatera pasatzean komeria



UTZITAKOA

aunitz egon daitezke medio, eta hori kudeatzen ikasten ari naiz». Musikaren munduan «emakumeok* xoko haundia okupatzea lortu dugu, baina

gibeleko aldean ezkutuan gelditzen denari dagokionez, aunitz dago egiteko. Pribilegioak betikoen esku daude; estrukturala da». Ez du bere burua emakume* musikari bezala definitu, «musikari gisa baizik, pertsona bezala har nazaten». Hala ere, «egia da kanpotik emakume* bezala irakurtzen zaituzten momentutik, tendentzia aunitz horren arabera ditzake direla. Jasan ditudan jazarpen, sexualizazio eta gutxiespenak ez lituzke berdin jasanen bertakoa den gizon zis-hetero

txuri batek, ezta atzerititik etorritako azal beltzeko emakume* batek ere». Azken urteetan «lan aunitz eta lorpen haundiak» egin dira, «baina autokritika presente izan behar dugu, periferietan gelditzen diren kolektiboen irakurketa desberdina izan daitekeelako». Egoera aldatzeko «oinarriak astindu behar dira. Nondik gatozen jakinda argiago edukiko dugu norat nahi dugun joan, enpatia eta ulermena ardatz hartuta». Etorkizunera begira, «erronka indibiduala lanketa hauetarako indarra eta ilusioa gordetzea da. Kolektiboak aunitz egiten du, laguntza eskatzeak eta eskaintzeak».

«Ttikitatik ikusi dut izeba joaldun»

OLAIA LOIARTE ETXEKOLONEA JOALDUNA

Joare soinuak aditze hutsarekin «oilo larrua» jartzen zaio Olaia LoiarTE zubietarri; «joaldunaren atzean sentimendu eta emozio asko daude, alde batetik urdurtasuna eta disfrutatzeko gogo eta bestetik joaldun taldearen parte izatearen harrotasuna». Ttikitatik ikusi izan ditu familiakoak joareak jotzen, «eta ohorea da gaur egun berain ondoan joaldun ateratzea. Belaunaldiz belaunaldi bizirik mantendu den tradizioa da, eta gu ere transmisio horren parte gara». Lehenbiziko ateraldia Errege bezperan egiten dute; «beroketa moduan. Goiz-goizetik etxetik etxera ibiltzen gara, soinean larru eta joareak darmatzagula. Bertan, zeure burua ongi ikusiz gero, hurrengo pausoa inauterietan ekipamendu osoarekin ateratzea da, tunturroa, atorra, zapia, azotea, galtza urdinak, azpiko gona, zapinak eta abarkak jantzita». Inauteriez gain, «herriatik kanpoko ateraldietara joaten gara emakumeak gizonetakoekin batera». LoiarTE ttikitatik ikusi izan du emakumea joaldun ateratzen; «nire izeba Juli LoiarTE Mutuberria, hain zuzen ere». Gizonezko joaldun gehiago ateratzen badira ere, Zubietan «emakumearen figura egon da eta errespetatua izan da. Aurtetik, esaterako, zazpi emakume atera ginen inauterietako asteartearekin». Gainera, «jendeak askotan animatu ohi digu *aupa neskak!* bezalakoak ohikatu, eta pozgarria da guretzat. Errege bezperan neska asko elkartu ohi gara, hortaz, inauterietan emakume gehiago ateratzea gustatuko litzaidake. Gogoia, sasoia eta ilusioa badauzkagu, pausoa ematea besterik ez da falta».




UTZITAKOA

«Harreman eredua aldatu behar da»

AMAIA LUKANBIO LARRETxea FAMILIA MEDIKUA

Gaztetatik zuen buruan medikua izan nahi zuela Arantzako Amaia Lukanbiok. Bilbon ikasi zuen medikuntzako gradua, eta ondotik, lau urtez Iruñean egin du mediku egoiliar modura familia medikuntzako espezialitatea. «Lehen lanbidea gizonezkoen eta goi klaseen lotuago zegoen, baina nire belaunaldikoaren artean gehienak emakumeak gara», azaldu du. Pazienteekiko erlazioan desberdintasunak izan dituela azaldu du: «Behin baino gehiagotan aditu behar izan dut *medikua noiz dator* esaldia, emakume gaztea izanik erizaina naizela pentsatzen dutelako; edota mediku eta erizain taldean elkarrekin lanean gabiltzala nire lankide gizonetakoari zuzentzea elkarriketa». Berdintasuna lortzeko oraindik urrats aunitz egin behar direla iruditzen zaio: «Azaletik begiratuta agian berdintasuna hurbil dagoela ematen du, baina gehiago arakatzen hasita, rol edo menpeko harreman patroien kutsuak uste baino esparru gehiagotan ikusi daitezke. Harreman eredua erroretik aldatu ezean berdintasun osoa lortzea zaila da». Horretarako hainbat erronka aipatu ditu: «Berdintasunean oinarritutako heziketa sustatzea, denok iritzi matxistak eta alde aurretik ezarritako jokaera patriarkalak dauzkagula onartzea, eta emakumearen heroi papera kentzea, hori ere inposatutako bertze ideal bat delako, eta presio gehigarria sortzen duelako». Pertsonen arteko laguntza bultzatu behar dela dio, indibidualitatea gutxituz: «Indibidualitateak ustezko askatasuna ematen duen arren, laguntasun edo elkartasuna ezinbertzekoa da edozein mugimendutan».



UTZITAKOA

Birgaitze energetikoari buruz bilerak martxoan

Martxoaren 2an zuten egitekoa bilera Agerra auzoko bizilagunekin, eta 9an egingen dute Kanttonberrikoekin

A. LARRETxea

Nasuvinsak eta Berako Udalak Agerrako eta Kanttonberriko bizilagunentzat bi bilera antolatatu ditu auzo mailako birgaitze energetikorako laguntzen berri emateko. Bi bilerak Kultur Etxean egingen dituzte 18:30ean, martxoaren 2an Agerra auzoko bizilagunei zuzendurikoa egitekoa zuten eta martxoaren 9an Kanttonberrikoekin egingen dute.

Bilera horietan auzo mailako birgaitze energetikorako laguntzen berri emanen dute. Bi etxebizitza-eremu horiek arau termikoak ezarri aurretik erai-

kitako eraikinez osatuta daude. Oro har, existitzen diren etxebizitzak energia fosilaren kontsumoaren ia %20aren eta Nafarroan kontsumitutako energiaren %25aren erantzuleak dira; eta, duten antzintasunagatik, birgaitze sakoneko jarduketak behar izan ditzakete. Gainera, irisgarritasun-arazoak, egokitzapen funtzionalik eza eta bizigarritasun-arazoak izan ditzakete. Nasuvinsak, birgaitze energetikorako egungo laguntzen berri emanen du, eta aholkularitza zerbitzua eskainiko dute.



UTZITAKOIA

Inauteri jendetsuak izan dira aurtengoak

Ederrak izan dira aurtengo inauteriak ere. Musika eskolako ikasleen kontzertuarekin hasi ziren eta, eta haurren zingar arraultze eta Inude eta Artzainak, kaldereroak, Inudeen eta Artzainen inoizko konpartsa handiena, eta asteleheneko mozorroekin bukatu ziren. Heldu den urtean gehiago!

BERRI! TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

BERRI! BERRI! BERRI!

Zelain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 50 65

Ansonea ostatu · jatetxea

T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 BERA

Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarna eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507

0-3 Haur Eskola
info@jesusenbihotza.com
640 07 45 06 whatsapp
948 63 00 09

Parte hartzetik parte izatera.

Izen ematea irekia urte osoan zehar.

BERA

Bi autobus geltoki paratu dituzte Zalain auzoan

Zalain auzoko bizilagunen aspaldiko eskaera da autobus geltokia paratzea herriraino joan behar ez izateko

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak berriki onartu du Zalain auzoan bi autobus geltoki paratzea, bat Irungo noranzkoan eta bertzea Berako noranzkoan. Eskaera hori aspaldikoa da, orain arte autobusa hartzeko Beraraino joan behar izaten baitzuten Zalain auzoko bizilagunek, nahiz eta autobusak egunero beraien etxeen aitzinetik pasatu.

Udalak zenbait aukera landu ditu auzotarrekin azken urte hauetan, baina Nafarroako Gobernuak ez ditu orain arte aukera horiek onartu. Azkenean, lortu dute Gobernuak ezartzen zituen baldintzak betetzen dituen aukera bat onartzea.

Horren arabera, Irun alde-rako linean autobusak Zalain industrialdean, Noil gaso-

lindegi ondoan dagoen zerbitzuko karrikan geldituko dira. Bera alderako linean, berriz, N-121Ako Zalaingo irteerako malda bukaeran, Bide Berdera joateko zubia- ren ondoan geldituko dira.

Bi geldialdi hauek auzoko erdigunetik hurbil daude, eta irisgarritasun egokia dute auzotarrei zerbitzua emateko.

Bi geldialdiak egoki seina- leztatzeko pintura lanak egin dituzte, eta lan horiek buka- tuta, eta bandoa argitaratu- ta, dagoeneko martxan dira bi geltokiak.

Zalaingo bi autobus geltokiak martxan direla, gaur egun zortzi dira Berako autobus geltokiak. Agerran bi daude, Euskalduna parean bertze bi eta Toki Ona institutuko apar- kalekuan bertze bi.

Beñat Goñi kirol jokoetan pilotako txapeladuna

Sasoiko dago Beñat Goñi pilotaria. Nafarroako Kirol Jokoetan txapela lortu zuen Iruñean, eta Donezteben Malerrekako binakako txapelketan Eñaut Zubietarekin batera txapeldunorde izan zen.



UTZITAKOA

'Vuelta al pais de Elcano' liburua aurkezpena

Ander Izagirre kazetari eta idazleak, *Vuelta al pais de Elcano* bere azken lana aurkeztuko du martxoaren 17an, ortziralea, herriko liburutegian, 18:00etan. Idazlea bertan izanen da, eta liburua- ren nondik norakoei buruz so- lastatuko da. Liburua iraku- rri nahi duenak eskuragarri dauka liburutegian hartzeko.

Apirilaren 21ean, ortziralea, aldiz, Joseba Sarrionaindia- ren bisita izanen da liburu- tegian *Literatura geraldia* ekimenaren barrenean 18:00etan.

Jauregitarrentzat Gure Txokoako museko txapela

Otsailaren 25ean egin zuten Berako Gure Txokoa Elkarte- mus txapelketa. Parte har- tzaile aunitz izan ziren, elkar- tea goraino bete baitzen mus jokalariz. Irabazleak Iñigo eta Txitxo Jauregi aita-semeak izan ziren. Bigarren postuan Adur Huizi eta Andde Mari- torena gelditu ziren, hiruga- rren postuan Urko Navaridas eta Aimar Pikabea eta lauga- rren postua Bixente Goia eta Jesus Mari Zapiain. Baz- kide bikote onenaren saria bigarren postua lortu zute- nentzat izan zen.

ANTZUZELAI S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA, ARTISTIKOAK
OBRAK

Arduo

arropa-denda
etxeko osagarriak | lentzeria

Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136

JOSENEA ENERGIAK

JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU

Erregai Banaketa
Zerbitzu Berria
zure etxera
INFORMA ZAITEZ!

Ordoki Industrialdea, 47. partzela
31713 Arizkun (Nafarroa)

WhatsApp 625 324 423
Email: energiak@josenea.es

www.josenea.es

Manterola

Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA • GASA
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

Labe Zar

Astulohenetik
ortziralea:
07:15etik
aitzina

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzina

948 631 076 • BERA

Hirugarren sektorea ezagutzeko inkesta zabaltu dute

Merkatarienak bildu eta gero, orain herritar guztiek izanen dute iritzia emateko aukera martxoaren 19ra arte

AITOR AROTZENA

Sortu berri den Hirugarren Sektoreko Mahaiarekin batera, sektore honi buruzko ikerketa bat egiten ari da udala. Helburua merkataritza dinamizatzea eta, horrela, epe labur, ertain eta luzerako, etorkizuneko Lesaka bizi baten alde lan egitea da. Horretarako, diagnostiko fasearen barnean, udalerriko merkatarien iritzia eta ikuspuntuak jaso dituzte dagoeneko.

Orain, parte-hartze prozesuarekin jarraituz, Lesakako biztanleei entzuteko unea da. Horretarako, inkesta bat prestatu dute, online edo paperean egiteko eskuragarri egon dena (martxoaren 19a arte). Online egin nahi dutenek, herriko tabloi eta establezimenduetan dauden kartelen QR kodea eskaneatu beharko dute, edo bertzela, klik egin udalaren webgunean eta sare sozialetan eskuragarri dagoen estekan. Parte-hartzea ahalik eta handiena izan dadin, inkesta WhatsApp bezalako komunikazio-kanalen bidez zabaltzea eskatu dute.

Paperean ere

Inkesta paperean egin nahi dutenek, herriko komertzio eta zerbitzu hauetan bete dezakete: Eroski, Bittiria Hategia, Intzuri Optika, Amura Ileapaindegia, Izarra Okindegia, Kifrut, Ordoki Altzariak, Maite Arraindegia, Telletxea Estankoa, Txinelka Zapata denda, Kattagorria, Arrano, Ibaiondo Janari denda, Iturbena Kafetegia, Maite Igarzabal Ileapaindegia, Iñaki Janari denda, Pittin Haurrentzako Arropa denda, Oreka Nutrizioa, Zialdo, Xagu, kiroldegia eta udaletxea.

Erantzunak anonimoak izanen dira, eta hauek bildu ondotik, aitzinerago egingen den bilera ireki batean aztertu eta eztabaidatuko dituzte. Datu horietan oinarrituta, Hirugarren Sektoreko Mahaiarekin koordinatuta, udalerriko komertzioak eta zerbitzuak dinamizatzeko eta bizirik mantentzeko erabakiak hartuko dira. Herritarrak inkesta betetzera eta ikerketa honetan parte hartzera animatu ditu udalak.



AITOR AROTZENA

Giro ederrean joan dira inauteriak

Ohiko ospakizunekin joan ziren inauteriak. Ortzegun Gizeneko Arroltze-Arroltze eskearekin hasi eta ortziralean haurrendako ekintza politak izan ziren. 90 zaku-zahar atera ziren igande arratsean, tikiak karrikaz karrika ibili ondotik. Goitarrek eta Fraindarrek ere egin zituzten harat-honatak.

Hiru urteren ondotik, Tantirudantza jaialdia martxoaren 18an ospatuko dute

A. AROTZENA

Hiru urtez ospatu ezinik egon ondotik, ohiko formatura bueltatuko da Tantirumairu Euskal Folklore taldeak antolatutako Tantirudantza jaialdia martxoaren 18an. Oiartzungo Haurtzaro, Zumaiako Dantza Eskola eta Herrerako Herri

Ametza taldeko dantzari tikiak karrikaz karrika ibiliko dira 11:00etan hasita eta eguerdian Zubigainekoa dantzatuko dute herriko dantzari tikiak. Gero, denak batera emanaldia eskainiko dute plazan. Bazkalondoan, 17:30ean DJ Porru izanen dute plazan.



Magala

LESAKAKO UDAL HAUR ESKOLA

2023ko abuztu bukaeran emanen diogu hasiera ikasturte berriari

MARTXOAK 13 Astelehena 17:00etan

Ate irekien egunean etorri nahi izanez gero, izena eman (martxoak 12a baino lehen) magalalesaka@gmail.com - en haurraren izena eta adina zehaztuz.



AURREMATRIKULAZIOA

Martxoaren 6tik 17ra, Lesakako udalan

*2023ko maiatzaren 12ra arte jaio behar diren haurrek egin dezakete aurrematrikulazioa.

Edozein zalantza izanez gero, jarri gurekin harremanetan magalalesaka@gmail.com-en edo **688 77 45 30** telefono zenbakian.



LESAKAKO UDALA

Eltzeta karrikako 'pump track-a' laister martxan

95.805 euroko inbertsioa egin da eta Cederna Garalur garapen agentziak 50.000 euroko laguntza eman du

A. AROTZENA

Lesakako Udala Eltzeta karrikan egiten ari den *pump track* pista laister egonen da martxan.

Bizikletan, patinetean, skatean edo patinetan erabiltzen ahal den kirol eta aisialdirako instalazioa da *pump track*, gero eta toki gehiagotan egiten ari dena. Herrian zaletasun handia dago eta kirol hauen zaleendako, Bizibide proiektuko XC eta Enduro modalitateak, Harriondoko skate-park eta Iraingo trial pista osatzen dituela erran daiteke.

Kirola eta aisia uztartzen dituen egitura honek haurrentzako jostaleku bezala balio izateaz gain, bizikletan edo patinetan ibiltzen ikasteko leku bat da. Helduentzako ere entrenamendurako pista bat da, bizikletaren kontrolean eta teknikan sakontzeko.



'Pump track'-a asfaltatzeko lanak.

Instalazioaren kostua 95.805,60 eurokoa da, eta gastu hau ordaintzen laguntzeko Cederna Garalur garapen agentziak 50.000 euroko dirulaguntza eman du, PDR dirulaguntzen bitartez.

Orain lurra eta asfaltoa egonkortu beharra da, eta landutako den belarra eta zuhaitzak ere denbora beharko dute. Hori dela eta, udalak instalazioa ez erabiltzea eskatu du abisu berria eman arte.



Emakumeek besta libre egiteko eskubidea dutela aldarrikatu zuten. XULUFRINAK

Inauterietako ukituak eta sexu erasoak salatu ditu Xulufrinak Sare feministak

Besta parekidetasunez eta errespetuz egiteko aldarrikapena Plaza Zaharrera eraman zuten otsailaren 25ean, Xulufrinak sare feministak deitutako elkarretaratzean. Udalak ere bat egin zuen deialdiarekin. Xulufrinak emakume taldeko kideek irakurri zutenez, «azken egunetan hainbat herritarrek Lesakako inauterietan besta giroan gertaturiko eraso matxisten berri eman digute: ukituak, baboseoa, kolpeak eta baita sexu erasoak ere». Horren aitzinean, nazkatua daudela eta «emakumeok besta libre egiteko eskubidea dugu,

ez dugu zertan gure askatasuna mugatzen duten inolako erasorik jasan beharrik» adierazi zuten. «Alkohnola eta besta giroa ez da aitzakia. Erasotzen duenak ez du ez alkoholagatik ez ezein bulkada biologikoagatik egiten, oinarrian duen boterekeria matxistagatik baizik. Eta emakume bat alkoholaren eraginpean egoitea ezin da erabili haren egoera zaurgarriaz baliatuta hari min emateko». Herritarrei ere dei egin diete halako erasoei erabateko arbuioa erakusteko, «konplize izatea eraso bat bestea da».

Jauriena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOLEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOLEGIA MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

LIDERA
HORTZ KLINIKAK - ESTUDIO DENTAL

Iturrumunubiko plaza, 9-10 • 31770 LESACA (NA)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklina.es
@liderahortzklina

Ainhoa Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Delitu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

XIII. Usategietako igoera martxoaren 25ean izanen da

Malerreka Motorsport eskuderia eta Etxalarko gaztik taldea antolaketan ari dira buru-belarri

IRUNE ELIZAGOIEN

Auto lasterketak gustuko dituztenentzat urteko hitzordu garrantzitsua hurbiltzen ari da. Malerreka Motorsport eskuderiak eta Etxalarko gaztik taldeak antolatuta, martxoaren 25ean egingen da XIII. Usategietako igoera. Lasterketa egunean, 13:30ean izanen da errepide mozketa eta 14:30ean hasiko da lasterketaren lehenengo txanda. Ilunabarrean sari banaketa egingen dute herriko plazan. Parte hartu nahi dutenek martxoaren 6tik 17ra bitarte eman beharko

dute izena. Izen ematearen inguruko informazio zehatza www.etxalar.eus helbidean argitaratuko dute. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete aurtien ere laguntzaile izanen diren guztiei.

Altxataren urteko batzarra

Martxoaren 11n Altxata Kultur eta Kirol Elkarteak urteko batzar orokorra egingen du Kultur Etxean larunbatean 19:30ean. Bazkide guztiak bilerara deitzen ditu elkarteak, denek ekarpenak garrantzitsuak direlako.

Kautzu jaurtiketa inauteriak borobiltzeko

Astearte arratsaldean kautzu jaurtiketa egin zen plazan eta irabazleak Aiert Irigoien eta Markel Irazoki izan ziren. Astelehenean eskean ibili ziren baserriak eskertzeko ere, bi lote zozketatu ziren. Hauek Etxeberriko borda eta Anso-neko bordara joan ziren.



Kautzu jaurtiketako irabazleak.



KATAISHA NARRO, ITSASO ELIZAGOIEN ETA IRUNE ELIZAGOIEN

Giro onean joan dira

Ortzegun gizenarekin hasi ziren ospakizunean. Landagain eskolakoak mozorrotu eta herriko txokoetan antzerkiak, dantzak eta ekintzak egin zituzten. Astelehenean 60 bat gazte baserriz baserri ibili ziren eskean. Astearte eguerdian mozorro eta karrozek herriari itzulua eman zioten.




Martxoaren 16tik aitzinera IREKIA

Lagunartak, kinto bestak, familia ospakiz-unak...





Iruñea - Irun errep. 60km - 31760 ETXALAR T. 948 635 000
info@etxalar.com - www.etxalar.com



HEGAZTIEN KONTROLA:

Hortz/pintxo edo bertzelako sistemekin hegaztiekin eraikineko zenbait lekutan ez ezartzea kontrolatzen dugu. Horrela, ez dira eroso sentituko eta ez dira bertan geldituko edo kabiak egiten hasiko.

XILOFAGOEN AURKAKO TRATAMENDUAK:

Egurrezko egiturak eta altzariak zainduz eta beharrezko tratamendua emanez biziraupena luzatzen diegu. Termita, pipi, onddo zein lizunen aurkako tratamendu prebentiboak zein talka-tratamenduak egiten ditugu.



INTSEKTUEN AURKAKO TRATAMENDUAK:

Edozein intsekturen aurkako tratamenduak egiten ditugu (labezomorroak, liztorrak, xinaurriak, sitsak...). Horretarako arazoa aztertu eta metodo egokia zein den aztertu eta tratamendua egiten dugu.



SAGU ETA ARRATOI-HILTZE TRATAMENDUAK:

Neurri fisikoekin zein kimikoekin egiten diren tratamenduekin saguen eta arratoien kontrolaz arduratzen gara. Tratamendu hauek egin aitzinetik beti gogoan izan behar dugu neurri batzuk hartzea ezinbertzekoa dela (elikagaiak eta ura saihestea, tutuen eta kableen pasabideak ongi ixtea, gordelekuak ekiditea...).



DESINFEKZIOAK:

Hainbat metodo erabiliz gure inguruan aurki ditzakegun mikroorganismo ezberdinen aurkako tratamenduak egiten dira (bakteriak, protozooak, onddoak...).

16 ttipi-ttapa | 825. zk. | 2023-03-09

Martxoaren 8aren inguruko jarduerak aste honetan

Bortzirietako Emakumeen XXIII. Mendi Itzulia egingen dute martxoaren 12an herrian

NEREA ALZURI

Asteazken honetan izan da Emakumearen Nazioarteko Eguna. Joan den igandetik egunaren inguruko ekimenak ari dira egiten mugimendu feministak eta berdintasun batzordeak antolatuta.

Asteazken eguerdian, herriko plazan, elkarretaratzea deitua du mugimendu feministak.

XIII. Mendi Itzulia herrian

Igandean, Bortzirietako Emakumeen XIII. Mendi Martxa izanen da herrian. 09:00eta-

ko plazan biltzeko deialdia egin dute eta denek elkarrekin mendian barna itzuli bat egingen dute.

Mendi buelta egin ondotik, duxatzeko aukera izanen du nahi duenak eta Ekaitza elkartearen eskutik hamaiketako eskainiko zaie parte hartzaileei. Eguna borobiltzeko, 14:00etan bazkaria izanen da Burlada jatetxean. Mendi Itzulian nahi duten emakumeek parte hartzen ahal dute, baina, bazkarirako izena emateko epea bukatua da jada.



Erdian, Alberto Fagoaga eta Unai Iparragirre txapeldunak. UTZITAKOA

Unai Iparragirre eta Alberto Fagoaga garaile mus txapelketako kanporaketan

NEREA ALZURI

XIII. Euskal Herriko Mus Txapelketa aitzinera doa eta joan den otsailaren 25ean, Ekaitza elkartearen, herriko saioa egin zen. Zortzi bikotek hartu zuten parte eta Alberto Fagoaga eta Unai Iparragirrek osaturiko bikoteak irabazi zuen. Bildotsa eta botila xanpain

bana eraman zituzten sari gisa. Txapeldunorde, Xatur Larralde eta Fermin Etxeberria izan ziren eta oilasko bana eta ardo botila bana izan zituzten sari.

Alberto eta Unai, larunbat honetan Iruñean izanen den herrialdeko kanporaketan ariko dira.

Martxoaren 25an sagardotegira irteera egingen dute

NEREA ALZURI

Luzaroan egin ez den ateraldia egingen dute aurten. Ekaitza Elkarteak eta Gazte Asanbladak antolatuta, martxoaren 25ean, Errenteriko Egiluxe sagardotegira ateraldia antolatu dute. 12:30ean poteoa izanen da herriko ostatuetan. 13:30ean

abiatuko da autobusa apartakalekutik. 14:00ak alderako Egiluxe sagardotegian egonen dira bazkaltzeko. Bazkalondo luzea gozatu ondotik, goizaldeko hiruetan autobusean etxerantz bueltatuko dira. Txartelak 50 eurotan eskura daitezke Pabloenean.

Literatura Geraldien barrenean, Nerea Ibarzabalek bere liburua aurkeztuko du

NEREA ALZURI

Iaz bezalaxe, aurten ere, Literatura Geraldia egitasmoaren barrenean liburu aurkezpen bat izanen du guherrian. Apirilaren 27an, 17:00etan eta liburutegian, Nerea Ibarzabal idazlearekin *Bar Gloria* bere buruz elean ariko dira.

Euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna sustatzea, euskal kultur kontsumoa eta liburugintza indartzea eta bidenabar, esperientzia literarioak partekatzea nahiz liburutegien erabilera bultzatzea ditu helburu Literatura Geraldia egitasmoak.

Zelain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelain.info

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

ANELAN
LAN BERTIKALAK

Sokekin egindako lana, andamionik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fabaden konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, teilatuen eta
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

948 031 174
info@anelan.pro

MARITX

INGENIARITZA ELEKTRIKOA
PROIEKTU ELEKTRIKOAK
BOLETIN INDUSTRIA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

Herriko pilotariak ere bikain dabiltzan eta hemen

Malerrekako eskuz binakako eta Nafarroako Kirol Jokoetako buruz buruko finaletan izan da Nahia Bertiz

MAIDER PETIRENA

Otsailaren 18an Malerrekako eskuz binakako 21. Txapelketako finalak jokatu ziren. Nahia Bertiz Babace herritarrek Lazkaoko Natale Aranbururekin bikote eginez ez zuen irabazterik izan. Klub arteko lau eta Erdiko txapelketako finalak otsailaren 15ean jokatu zituen Erreka elkarteak eta hor ere hiru herritarrek parte hartu zuten: Yeray Jimenez Etcheverry, Ibai Maritxalar Ibarrek eta Ibai Petirena Gorosterrazuk. Jimenezek eta Petirenak txapela herrira ekarri zuten.



Yeray Jimenez txapeldun.

Horrez gain, Nahia Bertizek Nafarroako Kirol jokoetako banakako txapelketako finala otsailaren 25ean Labrit pilotalekuan jokatu zuen, baina ez zuen irabazterik izan.

Haur Minbiziaren Nazioarteko Egunean murala

Otsailaren 15ean Haur Minbiziaren Nazioarteko Eguna ospatu zela eta, ADANO elkartearen proposamenaren bat egin eta osasun langileak eskertzeko kartela margotu zuten eskolan.



UTZITAKOA



NEKANE GARTZIA

Berrogei zuhaitz landatu dituzte

Guraso Elkarteak eta udalak antolatuta, Meliton Irazoki herritarra eta Jesus Mari Andueza basazoinaren eskutik 40 zuhaitz landatu zituzten otsailaren 25ean. Goiza ederra pasatu zuen kuadrilla eder horrek. Eskerrak eman dizkiete Meliton eta Jesus Mariri goiza beraiekin emateagatik.



JON ANZIZAR

Euskal Herriko mus txapelketa

Euskal Herriko Mus txapelketako kanporaketa Ulibeltzak elkartearen jokatu zen. 19 bikotek parte hartu zuten eta hiru lehenak (Agurtzane Zubieta-Maria Sarratea, Koldo Herrera-Gorka Antuña eta Julen Iturri-Xabi Ruiz) martxoaren 11n Iruñean jokatu den Nafarroako finalean izanen dira.



KAGU
LIBURUDENDA
Tel./Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEROK GUREA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- LIBURU EGINAKO INPRIMAKETAK
- ESKALERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK





F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
bisitatu gure online dendak!
102 Meaka auzoa
20304 IRUN - T.943 623 130



- Bertako sagarrek egindako sagardoa
- Euskal Sagardoa J.D. eta sagardo ekologikoa
- Asteartetik larunbatean afariak, Ostiralean eta larunbatean bazkariak ere.

Haurren obesitatearen kontrako proiektua

'Atxikiz pausoka, zoriontsu haziz' proiektua berrartu dute, pandemia garaian bertan behera utzi ondotik

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Osasun Etxeko Gizarte Zerbitzuek 'Atxikiz pausoka, zoriontsu haziz' proiektu komunitarioa abiatu zuten 2018an Malerrekan eta Bertizaranan. Proiektuak bi helburu zituen: eskualdeko haurren obesitatearen kopurua jaitea eta elikadura ohitura osasuntsuak bultzatzea.

Covid-19ak geldiarazi zuen proiektua, «eta haurren obesitatearen datuak okerrera joan dira». Horregatik, lantaldeak hurrengo hilabeteetan proiektua berrartzea erabaki du, hainbat kirol ekimen sustatuz eta elikadura ohiturak aldatzeko kanpainak eginez.

Zergatik kasu egin haurren obesitateari?

Osasun Komunitarioko Behatokiaren arabera, Malerreka eta Bertizaranako haurren obesitate eta gehiegizko pisuaren tasa Nafarroako handienetakoa da. 2019-2021 urteetan egindako neurketan, 0 eta 5 urte arteko hurrek

Nafarroako tasarik altuena zuten, arazo handienak 0-5 eta 6-9 urte tartean izanik.

Obesitateak eragin aunitz izan ditzake eta osasun arazoak sortu: diabetesa, arteria-hipertentsioa, arnaseko, muskuluetak eta hezurretako arazoak, autoestimubaxua... «Pentsatu ohi dugu haurren gehiegizko pisua nerabezaroan desagertuko dela, baina hau, ohiturak aldatu gabe, ez da egia. Aldiz, adinarekin arazoak larritu daitezke».

Hau ekiditeko, «haurrak osasuntsu hazi eta ongizate fisiko, psikiko eta soziala sustatu behar dugu, ohitura osasungarriak bultzatuz: mugitu, denetarik jan (fruta eta barazki ugari), gantz gutxiago hartuz, azukrea murriztu...».

Proiektuan hainbat erakundek parte har dezaketela adierazi dute: «Osasun Etxeak, Gizarte Zerbitzuek, eskolak, institutuak, udalak, kirol eta gurasoen elkarteak... guztion artean haurtzaroa zain dezakegu».

Futbol campusa Donezteben aste santuan

Osasunak 16. aldiz futbol campusa antolatu du aste santuan Donezteben. Apirilaren 11tik 14ra bitartean, lau egunez elkartuko dira 4 eta 12 urte bitarteko haurrak eta gaztetxoak. Adinka, hiru taldetan banatuko dituzte parte hartzaileak—hastapena, ikasketa eta teknikazioa—eta talde bakoitzak ariketa espezifikoak egingen ditu. Izen ematea apirilaren 2an bukatuko da eta www.fundacionosasuna.com atarian egin behar da. Informazio gehiago 948 29 30 40 zenbakira deituta jaso daiteke.

Zaria koru eskolako ikasleen emanaldian Sunbillako elizan

Martxoaren 12an, igandean 18:00etan Sunbillako San Joan bataiatzailearen elizan Errenteriako Zaria koru eskolako ikasleek emanaldia eskainiko dute.

Gaztetxoek zein helduek Berpizkundeko musika kantatuko dute emanaldian, Imanol Elizasu abesbatzako zuzendariaren gidaritzapean.

Elizasu lehendik ere ezaguna da eskualdean, Giltzarri abesbatzak Lesakan urtero antolatzen duen haurrentzako ikastaroa gidatzen baitu berak.

Ernaik Baztan-Bidasoko topagunea egingen du Donamarian martxoaren 18an

TTIPI-TTAPA

Landa eremuaren etorkizunerako herri alternatiba orain goiburupean Baztan-Bidasoko gazteen eguna ospatuko dute martxoaren 18an Donamarian, hamargarren urterena ospatzen duen Ernai gazte erakundeak antolatuta.

10:00etan hasiko dute eguna pilota partidekin. Ondotik, 12:00etan Landa eremuaren etorkizunerako herri alternatiba orain solasaldia egingen dute Tasio Erkiziak, Gotzone Sestorainek eta Joseba Otondok. 14:00etan bazkari herrikoia

izanen dute, eta gero gazte topagunearen bertso aurkezpena egingen dute. 17:30ean hasita tailerrak egingen dituzte, 18:30ean tonbola eta 19:30ean batukada. Eguna bukatzeko, 22:00etan hasita Xabaltz, Burutik eta Gabezin taldeen emanaldia izanen da, eta DJa izanen dute eguna borobiltzeko.

Ernaiko kideek adierazi dutenez, «eskualdeko gazteok elkarrekin hausnartu, ikasi eta ederki pasatzeko topagunea izanen da, landa eremuaren etorkizunerako herri alternatiba behar dugulako».



AURREMATRIKULA:

Martxoaren 6tik 17ra udaletxean

MATRIKULA:

Maiatzaren 18tik 25era udaletxean



Elizagibela karrika 8, behea. | T. 948 45 18 68 | DONEZTEBE | NAFARROA | askinhaureskola@gmail.com

Emakumearen Egunaren harira ekitaldiak prest

Uxoia Bertiz futbolariaren bisita izanen dute eskolan eta afariak egingen dituzte asteburuan Aurtitzen eta Iturenen

ARKAITZ MINDEGIA

Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan eskolan zenbait ekitaldi prestatu dituzte martxoaren 8rako eta emakumeen afariak izanen dituzte aste hondarrean Aurtitzen nahiz Iturenen.

Alde batetik, Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleek, martxoaren 8an hainbat ekintza egitekoak dituzte. Kantu kolore taldearen *Nire gorputza* abesti ezagunaren bertsioa eginez dantzatu eta abestuko dute. Emanaldi hau prestatzen ibili dira asteotan. Horrez gain,

eskolara bisitan etorriko zaie Uxoia Bertiz Baztango futbolaria. Bere esperientzia kontatuko du, futbolaren mundu honetan dauden ezberdintasunak erakutsiz. Bere ibilbidea aurkeztu bidenabarkoan, emakume kirolariengatik garrantzia azpimarratuko du. Atzerrian ibilia da Bertiz, baina azken urteetan Osasuna taldean dabil.

Bertze aldetik, emakumeen afariak egingen dituzte martxoaren 10ean, ortziralean, Aurtitzen eta larunbatean Iturenen.

Sua eta elurraren bisita izan da otsailean

Azken egun hauetan suaren eta elurraren presentzia izan da mendietan. Erreketak dirrela eta, mendietan sua nahiko hedatu zen, nahiz eta kontrolatua izan. Elurrak ere bisita egin zuen. Herrian jartze-ko adina ez zuen egin, baina bai mendietan.

Iturengo Herriko Ostatuan gogotsu abiatu dira

Gogotsu dabilta Itxaso eta Arrosatxo Herriko Ostatuako arduradunak. Urte berriarekin ireki zituen berriro ateak eta eskaintza berriei dator. Pintxo potea eta eguneko menuaz gain, igande arratsaldetan taloak ematen dituzte, bertan jateko edo etxera eramateko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ehiztariak fin dabilta azken aldian

Denboraldia ederki joan da herriko ehiztarientzako Urri garaian gehienak postuetan ibiltzen ziren uso ehizan, baina batzuk basurde ehizan ere. Sasoia akituta, basurde kuadrila bat bota dute eta, akabaila emateko, etxera esku hutsik ez ziren bueltatu, argazkian ageri denez.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pilotariak txapelketa txapelketa

Gaztetxoak Nafarroako kirol jokoetan, Baztango, Malerreka eta Zizurko txapelketetan dabilta eta Ados elkarte binakako txapelketako partiden aitzinetik ere aritu dira ttikienak. Ugaitz Elizalde, berriz, Garferen lau eta erdiko txapelketaren finala jokatu du martxoaren 17an Arnedon.

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA

Txotx denboraldia irekia!
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) - TEL. 948 63 72 12

ORBELA
SAGARDOTEGIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idola - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

744 484 361

ttipi-ttapa

MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491



Etxekolona eta Mujika babestu zuten Labriten. UTZITAKOA

Etxekolonea finalaren atarian kanporatu dute

Adosen binakako txapelketako finalerdia galdu zuen Labriten, baina herritarren babesa sumatu zuen

FERMIN ETXEKOLONEA

Finalerdietan akitu da Etxekoloneak Ados pilota elkar-tearen eskuz binakako txapelketan egin duen ibilbidea. Mujikarekin batera txapelketa polita egin du, baina otsailaren 26an Labriten jokaturako finalerdian amore eman behar izan zuten orain arteko partida guztiak irabazi dituzten Barrocal eta Ruiz de Laramendiren kontra. Halere, kontent zen Naroa, bai txapelketarekin, baita Iruñeko pilotalekura hurbildutako herriko zaleen babesarekin ere. Pilota kontuekin segituz,

Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketako gazte mailako finalean aurrez aurre izan ziren bi herritar. Biek ezin irabazi eta Endika Santestebanek, Oberenako Sarasibar taldekidearekin bikote eginez 22-14 irabazi zion Oberenako Sanchezekin aritu zen Aitor Agestari (Erreka).

Emakumearen Eguneko afaria
Emakumearen Eguneko seinala, emakumeen afaria egingen dute larunbatean herrian. Santxo okindegian eman behar da izena eta horren arabera erabakiko da otordua non egin.



JAIONE ARIZTEGI

Urrozko inauteriak ere ederki joan dira

Primerako giroarekin inauteriak gozatzeko aukera izan dute urroztarrek. Ortzirale arratsaldean herriko haurrek etxeko eskea egin zuten, eta gauean berriz, 40 lagunek afaldu zuten herriko ostatuan. Biharamunean, gazteek urteroko buelta eman zuten baserrietan barrena.

hotel-balearia
elgorriaga
hotel-baimuetria

Ospatu zure jaunartze besta leku berezi batean. Jantoki pribatuak eta menu aukera zabala.

Errotaldea z/g 31744 ELGORRIAGA (Nafarroa) | T. 948.45.60.45 | www.balnearioelgorriaga.com

Emakumeen mendi buelta eta paella jatea larunbatean

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira antolatu dute martxoaren 11n

JAIONE ZABALO

Martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira zenbait ekitaldi antolatu dituzte han eta hemen. Ezkurran ere, egunean berean ez, baina asteburuari begira zer bait egitea pentsatu dute. Honela, martxoaren 11n, larunbat goizean mendibuelta egingen dute. Ondotik, herrira

bueltan, indarrak berreskuratzeko paella bertan egingen dute eta herriko ludotekan bazkalduko dute.

Berriz ere, aldarrikapenak eta ospakizunak bat egingen dute egun berezi honen inguruan. Aldizkari honen erreportajeko izenburuak dioen bezala. «emakumeen ahotsa aditzeko garaia da».



JAIONE ZABALO

Inauteri bikainak ospatu dituzte

Otsailaren 25ean, goizean, trikitilariekin etxez etxe ibili ziren. Arratsaldean, berriz, batzuk baserrietan ibili ziren bitartean, haurrentzako disko-festa eta merienda ere egin zuten ludotekan. 50 bat lagun bildu ziren Barrankako afarian, Maddalen Arzallus eta Aitor Mendizabal bertsolariekin.



Narbarteko Zumbonak, giro ederrean. OLATZ MUTUBERRIA

Giro ederrean joan dira inauteriak Narbarten, moztorro lehiaketa eta guzi

OLATZ MUTUBERRIA NARBARTE

Giro ederrean joan dira inauteriak Narbarten ere. Asteazken eta ortzegunean haurren ihauteriak izan zituzten. Asteazken arratsaldean hasi ziren haurrak eta baserrietara joan ziren eskean.

Mozorrotzeko gai librea izan zuten eta denetarik ikusi zen: ehiztariak, pailazoak, raperoak, erizainak...

Ortzegunean, berriz, herrian ibili ziren eskean eta moztorrotzeko gaia Mexiko izan zuten. Goiza herrian eskean pasa ondotik, haur eta gurasoek bazkaria izan zuten ostatuan.

Ondotik haur jolasak izan zituzten eta eguna akitzeko txokolate goxo-goxoa.

Gazteek moztorro lehiaketa ortziralean

Ortzirale arratsean, berriz, gazteek hasi zituzten inauteriak. Trinketea afaria eta moztorro lehiaketa egin zuten. Moztorro lehiaketan Nerea eta David izan ziren irabazle, Itxaso eta Jon bigarren eta Maite Iriarte hirugarren. Gauean DJ JJ aritu zen. Larunbatean herriko gazteak etxez etxe ibili ziren eskean, Aurtizko trikitilariekin herria alaituz.



NEREA MEOKI

Legasako eskolan ere inauteriak

Herriko inauteriekin bat eginez, ortziralean, Legasako eskolan moztorrotu eta herria kolorez bete zuten. Goizean dantzak, kalejira, gosaria eta ondotik handien gelakoek prestatutako bazkari goxoa izan zuten elkartean. Eskolatik eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu eta hurbildu zirenei.



**EZ NAZAZU DEITU
PLASTIKOEN EDUKIONTZIA.
ONTZIEN EDUKIONTZIA NAIZ!**

EDUKIONTZI HORIAN

PLASTIKOZKO, METALEZKO ETA
TXAPAZKO ESTALKIAK ETA TAPOIAK

FILM-PAPERA ETA ALUMINIO-PAPERA

TARRINA ETA JOGURT-ESTALKIAK

ALUMINIOZKO ETA POLIEXPANEZKO ERRETILUAK

PLASTIKOZKO ONTZIAK ETA POLTSAK

ONTZI METALIKOAK

AEROSOLAK

BRIKAK



Zalantzak badituzu, bilatu ikur hau zure ontzian.



Enpresan euskara txertatzeko gida sortu dute

Lan munduan euskararen erabilera txikia dela ohartuta prestatu dute Nafarroako mendialdeko euskara zerbitzuek

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak elkarlanean Enpresan euskara txertatzeko eskuliburua prestatu dute, «lan munduan euskararen erabilera txikia dela ohartuta. Hezkuntzan, administrazioan, aisialdian eta hedabideetan, bertzeak bertze, euskara bere espazioa irabazten joan bada ere, arlo sozio-ekonomikoan hutsune handi samarra dago oraindik».

Argitalpenak «edozein taimainako enpresatan euskararen presentzia eta erabilera bultzatzeko» proposamenak biltzen ditu, hainbat aholku, argibide eta informazioen bidez. Euskarak lan mundua

bereganatzearen garrantzia eta enpresan txertatzeko dau den arrazoiak eta moduak azaltzen dituzte, baita esku-ragarri dauden dirulaguntzei eta gobernu, udal eta mankomunitateen eskaintzari buruzko informazioa ere.

«Erabaki kontzientea»


Enpresako giroa euskalduntzeko «erabaki kontzientea» hartu behar dela azaldu dute; «lan mundua ez baita modu naturalean euskaldunduko, esku hartze planifikatua eta eragile guztien parte hartzea eta elkarlana behar dira horretarako». Nafarroako Mendialdeko euskara zerbitzuek era guztietako enpresak animatu dituzte euskararen aldeko urratsak ematera. Bide horretan laguntzeko prestatu dute, hain zuzen, eskuliburua.

Hizkuntza-paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntza Bortzirietan

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak hizkuntza-paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntza berria paratu du martxan. Bortzirietako ostalaritza eta merkataritza establezimenduei dago zuzendua, baita elkarte eta enpresei ere. Hala, dirulaguntza eskatzen ahal izanen dute errotulazio elementuak, irudi korporatiboarekin zerikusia duten elementuak eta ingurune digitala osatzen duten elementuak euskaraz paratu nahi dutenek.

- **Errotuluak:** kanpoko eta establezimendu barruko errotulu finkoak, baldin eta jendaurreko gunean badaude. Ez dira diruz lagunduko izen propio, toponimo, akronimo eta abizenak baino adierazten ez dituzten errotulazioak.
- **Irudi korporatiboko elementuak:** bisita-txartelak, identifikazio-zigilua, poltsak...
- **Ingurune digitala:** webguneak, online dendak, APP-ak eta .eus domeinua. Informazio gehiago: <https://bortzirriak.eus/dirulaguntza/1080/>.



Izokin arrantzan Bidasoan. Horrelakorik ez da izanen aurten. ARTXIBOKOA

Izokina arrantzatzea debekatuko dute denboraldi honetan Bidasoan

TTIPI-TTAPA

Denboraldi honetan ezin izanen da izokinik arrantzatu Bidasoan. Horixe da Nafarroako Gobernuak Itziar Gomez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak onartutako foru aginduak, 2023rako arrantzarako debekualdien xedapen orokorrak onartzen duena.

Berrikuntza gisa, 2023 honetan izokinaren geldialdi biologiko bat egingen da, hau da, arrantzatzea debekatuko da espezie hau berreskuratzeko aldera zeren, GAN-NIK sozietate publikoaren azken txos-

tena kontuan hartuta, bere egoera kritikoa da duela hiru hamarkadatik, baina okerrera egin du 2018tik tenperaturen igoeragatik eta lehortegatik.

Espezie hau berreskuratzeko, geldialdi biologikoa eta piszifaktoriako arrainkumeen ekoizpeneko ohikolanez, ibai eta erreken iragazkortze lanez hala nola izokina kudeatzeko planak barne hartzen dituen gainerako neurriez haratago, Ingurumen departamentua lanean ari da lan-talde bat sortzeko, LIFE Kantauribai proiektuaren esparruan irtenbideak proposatzeko.

'Literatura geraldia' ekimenaren barrenean hainbat ekitaldi eskualdean

Literatura geraldia programa antolatu dute Baztango Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak eta Sakanako Mankomunitateak bigarren urtez segidan. Hamabi saioetatik sei eskualdean izanen dira. **Apirilaren 27an**, Nerea Ibarzabal Bar Gloria liburuaren inguruko solasaldia **Arantzako Liburutegian** 17:00etan. **Apirilaren 19an**, Irakurbide feministak euskal literaturan solasaldia Iratxe Retolazare-

kin **Elizondoko Liburutegian** 18:00etan. **Apirilaren 21ean**, *Egoerak eta liburuak* solasaldia Joseba Sarrionandiarekin **Berako Liburutegian** 18:00etan. **Apirilaren 26an**, *Idazleen gorputzak* solasaldia Eider Rodriguezekin **Elizondoko Liburutegian** 18:00etan. **Apirilaren 1ean**, *Nola iruzkindu liburu bat* ikastaroa Mikel Ayerberekin **Lesakako Arrano Elkarte**an, 10:00etan. **Apirilaren 19an**, *idazketa tailerra* Yolanda Arrietarekin 18:30ean **Leitzako Liburutegian**.

Errigoraren uzta martxoaren 9tik aitzinera

ttipi-ttapako harpidedunek erran.eus atarian egingen den lehiaketan parte hartuz ere eskura ditzateke bi xaxa

TTIPI-TTAPA

Udaberria hurbiltzearekin bat ailegatu da *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina. Martxoaren 9tik 29ra bertako oliba-olio birjina estra eta kontserba, arroz, lekale eta pasta sortak eskatu ahal izanen dira, euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorriko prezioan. Eskaerak *errigora.eus* helbidean egin daitezke eta baita bi zenbaki hauetan ere: Iparraldetik deitzen dutenentzat +33 532 09 35 45 eta Hegoaldekoentzako +34 848 87 12 23. Astelehenetik ostiralera deitu

beharko da eta 09:00tik 13:30era.

«Errigora balioak betetzen dituzte produktuak kontsumitzen dituzunean, nekazari eta elaboratzaileen arteko bidezko harremana bermatzen duzu. Izan ere, produktu horien atzean dauden nekazari eta erabitzaleek elkarrekin eta zuzenean adosten dituzte, besteak beste, ekoitzi beharreko kopuruak zein ordaindu beharreko kostuak. Euskara sustatzailea zara Ager eskualdean eta ondorioz, Euskal Herrian. Ekoizleei euskaraz



ERRIGORA

kontsumitu nahi duen komunitate handi bat parez pare agertzean, euskarak balioa irabazten du», nabarmendu dute.

Banaketa apirilaren bigarren hamabostaldian egingen dute, eta produktu denak batera jasoko dira salbuespenak salbuespen. Eskaera egiterakoan aukeratu behar da produktuak hartzeko puntua eta zehaztutako egunean pasa beharko da bila. Herriz herri informazioa zabaltzen, eskaerak bide-

ratzen eta produktuak biltegi-ratu eta banatzen ari direnen lan boluntarioari eskera egingen du proiektuak aitzinera.

Harpidedunen artean lehiaketa

Ttipi-ttapako harpidedun diren eta Erran.eus atarian egin-dako lehiaketan parte hartzen dutenen artean Errigorako bi saski zozketatuko dira. Parte hartzaileek ongi erantzun beharko dituzte galderak, eta asmatzaileen artean egingen da ondotik zozketa.



errigora

errigora.eus

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Bat egin Errigora Balioekin



Bete ezazu despentsa urte guztirako



Martxoaren 16an jokatuko dute mus txapelketako finala

30 bikotek baino gehiagok jokatuko dute Donezteben mus txapelketako finala

TTIPI-TTAPA

Herriz herriko txapelketak jokatuko ondoren, martxoaren 16an jokatuko dute Donezteben mus txapelketaren final handia. 30 bikotek baino gehiagoko hartuko dute parte, txapelketa bakoitzeko lehen hiru sailkatuek.

Lerro hauek idazterakoan oraindik ere txapelketa batzuk jokatzeak ziren, baina, oraingoz hauek dira finalerako sailkatutakoak: Pedro Zubieta eta Maria Eugenia Altxualde; Pedro Larretxea eta Esteban Sarratea; Joakina eta Jose Javier Bengoetxea; Juan eta Miguel Zabaleta; Isabel Huarte eta Jose Luis Larralde; Jesus Maria Etxeberria eta Jose Luis Larralde; Venancio Elizagoien eta Pedro Berrueta, Santiago Elizagoien eta Jose Joakin Zelaia; Manuel Arrosamena eta Pedro Irazoki; Maria Asuncion Iribarren eta

Anunciacion Txoperena; Jose Luis Sein eta Jose Maria Mitxelena; Severino eta Ramon Retegi, Matias Arriada eta Nicolas Alkasenea; Alejandro Cordoba eta Jose Martin Iturralde; Fermin Urrutia eta Fermin Barazabal; Marcelino Altxu eta Miguel Benito; Marcos Juanikorena eta Jose Francisco Muttuberria; Jose eta Pedro Jesus Santesteban; Tomas Torres eta Juan Larre; Juan Mari Galarregi eta Martin Etxeberria Martin Gamio eta Juan Angel del Moral; Manuel Altxate eta Juan Manuel Pombar; Juan Carlos Altxuguren eta Juana Maria Armis; Antonio Zubieta eta Gabriel Mitxelena; Juan Miguel Almandoz eta Fermin Etxeberria; Francisco Javier Telletxea eta Angel Mari Pikabea eta Felix Iparragirre eta Miguel Mari Altxuri.



UTZITAKOA

100 urte Igantziko Dolores Retegik

Igantziko Dolores Retegi Telletxeak 100 urte bete zituen otsailaren 20an. Ez dira egunero 100 urte betetzen, eta argazkian ikusten den bezala, ederki ospatu zuen eta opariak ere hartu zituen. Zorionak eta horrelako sasoiarekin segi dezala!



Berako irteeran parte hartu zuten mendizaleak. UTZITAKOA

Beran egin dute otsaileko irteera elkarteko mendizaleek

TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteko mendi taldeak hilabeteroko mendi itzulua egin zuen otsailaren 21ean, asteartean, Bera inguruan. 56 mendizale elkartu ziren 09:00etan, eguraldi ezin hobearekin eta Zalainetik abiatuta, Sarrailan barrera, Postan gosalduta ondoren,

Ibardinera igo ziren. Handik berriz ere Berara jaitsi eta Herriko Etxeko Plazatik Zalainera joan ziren.

16 km inguru eta 4 ordu baino gehiagoz ibili ondoren, Zalain jatetxean bazkaldu zuten. Eguraldi bikainarekin eta giro ederrean egin zuten txangoa.

Ikusmenari buruzko hitzaldiak Beran, Elizondon, Leitzan eta Donezteben

TTIPI-TTAPA

Ikusmenarekin arazoak dituztenentzako hitzaldiak antolatu ditu elkarteak martxoko azken bi asteetan. Glaukoma eta presbisia bezalako gaitzak landuko dituzte eta ikusmena erlaxatzen eta hobetzen irakatsiko dute Elizondon, Leitzan, Donezteben eta Beran eginen duten ikastaroetan.

Ikastaroa guztiak 17:00etan izanen dira. Elizondon martxoaren 20an, astelehena; Leitzan, 21ean, asteartea, Donezteben martxoaren 27an, astelehena, eta biharamunean, 28an, Beran.

Elkarteko hurrengo hitzorduetako izen ematea zabalik da

TTIPI-TTAPA

Udaberrian bi hitzordu garrantzitsu izanen ditu elkarteak, apirilaren 27an soinke-ta eguna alde batetik, eta maiatzaren 2tik 11ra bitartean Benidormerako bidaia bertetik. Dagoeneko jakinarazi dute bi hitzorduetarako izena

emateko data. Soinketa egunean parte hartu nahi dutenek martxoaren 13an, 14an eta 15ean egin beharko dute nork bere herriko delegatuari deituz. Benidormeko bidaiarako, aldiz, elkarteko bulegora deitu beharko da martxoaren 27an eta 28an.

BERAko Udalak eta NASUVINSAk Agerra eta Kanttonberri auzoetako etxebizitzak jabeen bilera baterako deia egin die, auzo mailako birgaitze energetikorako laguntzen berri emateko. Agerra auzoari zuzendutako bilera Kultur Etxeko Areto Nagusian egin da martxoaren 2an; Kanttonberri auzokoa, berriz, astebeteko beranduago.

Bi etxebizitza eremu horiek arau termikoak ezarri aurretik eraikitako eraikinez osatuta daude. Oro har, existitzen diren etxebizitzak energia fosilaren kontsumoaren ia % 20aren eta Nafarroan kontsumitutako energiaren % 25aren erantzuleak dira; eta, duten antzinatasunagatik, birgaitze sakoneko jarduketak behar izan ditzakete. Irigarritasun arazoak, egokitzapen funtzionalik eza eta bizigarritasun arazoak izan ditzakete.

Testuinguru horretan, erabakitasunez jokatu behar da, Nafarroako bizitegi inguruneetako energia-berroneratzearen jarduketak dinamizatzeko, etxebizitza duina eskuratzea bermatzeko helburuarekin, gizarte-kohesioa bultzatzeko giltzarria baita. Helburu horrekin, Berako Udalak, eta Lesaka, Doneztebe, Elgorriaga eta Baztangoek, NASUVINSArekin elkarlanean, dinamizazio eta laguntza zerbitzu bat jarri dute bertako biztanleen, teknikarien eta kudeatzaileen zerbitzura, beren etxebizitzak birgaitze prozesuetarako.

NASUVINSAk, birgaitze energetikorako egungo laguntzen berri ematen du, Nafarroatik eta Europatik datozenak, eta, bizilagunen interesaren arabera, erabakiak hartzen laguntzen du. Zerbitzu hau posible da EIBren (Europako Inbertsio Bankua) finantziazioaren bidez sortutako 'ELENA-PRIMAVERA' proiektuari esker.

Berako, Lesakako, Doneztebeko, Elgorriagako eta Baztango Udalak herriko bizitegi-parke kolektiboaren birgaitze energetikoa bultzatzeko lanean dihardute. Auzo-ekalan inbertsio hauek errazteko, udal horiek konpromisoa hartu dute birgaitze posible horiek espazioan antolatzeaz gain, planifikatutako eremuko etxebizitzak jabeentzako, laguntzen esparrua hobetuko duten aurreproiektuak egiteko eta ordaintzeko.

Beran, Agerrako eta Kanttonberriko bizilagunek aukera izanen dute aurreproiektu hau egiteko, HEGOALDE 29-35eko bizilagunek egin duten bezala. Eremu horretako esku-hartze globaleko proiektua amaitzeko fasean dago, eta emaitza oso ona da, Valer, Laborra eta Irigulbel arkitektoek sortutako infografia irudietan ikus daitekeenez.



Gibeleko fatxada



Oraingo egoera



Fatxada nagusia

BAZTAN-BIDASOA eskualdean esku-hartze orokorreko beste bi proiektu izapidetu dira: bata Elizondoko, Giltzaundi eremurako, eta bestea Lesakan, Errekaondoarako, biak DOARQk idatziak.



Giltzaundi (Elizondo): DOARQ



Errekaondoa (Lesaka): DOARQ

Agerra auzoaren kasuan, ingurunearen berroneratzeak 140 etxebizitzari eragin diezake, 18 ataritan banatuta. Bilerara gonbidatuta daude karrika hauetako bizilagunak: Bidasoa 45 eta 47, Urruña Plaza 1etik 3ra, Azkaine karrika 1etik 12ra, Ziburu karrika 1 eta 2, eta Sara karrika 2 eta 4. Guztiak 1971 eta 1975 arteko eraikinak dira.

Kanttonberri 96 etxebizitza dira, 12 ataritan, 8 etxebizitzatakoak, 1967tik 1972ra bitartean eraikiak.

Birgaitze energetikoaren arloan eskuragarri dauden laguntzei buruzko informazioa lortzeko, Baztan-Bidasoko NASUVINSako teknikariarekin jar zaitezke harremanetan:

Patxi Irlarte 848 42 01 39 firlarte@nasuvinsa.es



Nerabeak ardatz dituen aisialdi eremua sortuko dute Inguruarten. UTZITAKOA

Maiatzean bukatuko dituzte Inguruarte eraberritzeko lanak

'Pump track' bat, eta berdegune bat egingen dituzte txirrista, esertoki eta oholtza batekin

TTIPI-TTAPA

2019ko urrian hasi zuen Leitzako Udalak Inguruarte eremua berreskuratzeko proiektua. Garai batean oso erabilia bazen ere, azkeneko urteetan alde batera utzitako lekua zen Inguruarte, eta espazioari erabilpen berri bat emateko erabakia hartu zuen udalak. Horretarako, parte hartze prozesua abiatu zuten 2019ko urrian, «espazio ludiko, lasai eta biltzeko gune atsegin bat» sortzeko. Eta nahi baino beranduago, baina azkenean maiatzerako lanak bukatuko direla aurre-

ratu dio Nahikari Uriarte zinegotziak TTIPI-TTAPari. Lanak bukatu orduko, herriarrentzako eskuragarri izanen da gune berria.

Lanak esleitura

Otsailean egin zuten obraren adjudikazioa eta martxoan hasiko dituzte lanak. Behin horiek hasita, maiatzaren hasierarako bukatzea aurreikusi dute. Berdegunean, bizikletekin, patinekin, skatearekin... ibiltzeko *pump track* zirkuitu bat eraikiko dute. Zelaia ere txukunduko dute eta txirristak, sokak, esertze-

ko lekuak eta oholtza bat egingen dituzte. Bi enpresa arduratuko dira lanak egiteaz. Valeriano Santesteban SL enpresak eraikiko du *pump track* zirkuitua, eta 56.889 euroko aurrekontua izanen du lanak egiteko, eta Goikomendi Ingurumen Zerbitzuak SL enpresaren egitekoa izanen da paisajismo lanak egitea, 61.200 euroko aurrekontuarekin.

Prozesu «luzea»

2019an abiatu zuten ingurua berritzeko proiektua, eta Uriarteren hitzetan «nahi baino gehiago» luzatu da prozesu osoa. Izan ere, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren baimena behar izaten da erreka bazterrean diren lanak egiteko, eta tramitazio prozesua «luzea» izan da. Behin baimen guztiak lortuta, Landa Garapen Programak, EB eta Nafarroako Gobernuak diruz lagunduta garatu dute proiektua.

Bereziki nerabeentzako gune bat sortu nahi izan dute, herrian gabezia hori zegoela detektatu baitzuten: «Herriarren iritzia biltzeko parte hartze prozesua abiatu genuen, eta lanketa berezia egin genuen Erleta eskola LH 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleekin, beraien beharrak asetzeko espazio bat sortzeko», konstatu du Uriartek.

Bizikletearekin, patinekin, patineteekin... erabiltzeko gune bat eskatu zuten, eta baita elkarrekin egoteko eta otorduak egiteko mahai batzuk ere. Hasierako proiektuan beste lan batzuk egitea aurreikusten bazuten ere, azkenean nerabeengan zentratzea erabaki dute, *pump track* gunea egiteko aurrekontua diru kopuruan igoz.

Aisialdi guneaz gain, udalak ere aurrekontuetan partida bat gorde du herritik Inguruarterainoko oinezkoentzako bidea moldatzeko. Auzolanez moldatzea aurreikusi dute, eta udalak tresnak eta materiala erosiko ditu. Horrela, herritik abiatuta aisialdi gune horretara oinezkoen bide irisgarri eta segurutik joan ahalko da.

MARTXOAN HASIKO DITUZTE LANAK ETA BI ENPRESA ARDURATUKO DIRA

Urrezko Aizkorako binakako finalean bigarren postua lortu du Rekondok

TTIPI-TTAPA

XXIII. Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketako finala jokatu zuten otsailaren 26an Azpeitiko Urrestila (Gipuzkoa) auzoko frontoian. Bertan aritu zen Jon Rekondo herriko aizkolaria, eta Iker Vicente Nafarroako txapeldunarekin

bikotea osatuta, bigarren postua eskuratu zuen.

Rekondok eta Vicentek osaturiko bikoteak 18 minutu eta 9 segundu behar izan zituen lanak osatzeko, Hodei Ezpeleta eta Jokin Urretabizkaia *Basozabal* txapeldunek baino 50 segundu gehiago.



Jon Rekondo Urrestillan jokaturiko finalean. IBON ERRAZU URIA



Txirrindulariak iaz Leitzan hasitako etapan. UTZITAKOA

Leitzan bukatuko da 2023ko Itzuliaren bigarren etapa

Apirilaren 4an egingen dute Euskal Herriko Itzuliaren bigarren etapa, eta bitan pasatuko dira Leitzatik

TTIPI-TTAPA

Iazko Euskal Herriko Itzuliaren bigarren etapa Leitzan hasi eta Vianan bukatu zen, eta aurten, aldiz, alderantziz izanen da, Vianan hasiko da Itzuliaren bigarren etapa eta Leitzan bukatu apirilaren 4an.

Ikusmin handia piztu zuen iaz etapa hasierak Leitzan, eta aurten ere ez da gutxiago izanen. Itzuliaren etaparik luzeena izanen da; 193,8 kilometro izanen ditu, eta Vianatik Leitzarako bidean bost portu igo beharko dituzte.

Uitzin barrena iritsiko dira txirrindulariak Leitzara lehe-

nengoz. Handik, Arkiskil hirugarren mailako portua igo beharko dute, ondoren Saldias bigarren mailakoa, eta Urrozen barrena Doneztebera joanen dira. Donezteben berriz ere Leitzarako bidea hartuko dute, eta Arkiskil berriz igo eta Leitzan bukatuko da etapa.

«Etaparen bigarren zatia zirkuitu antzeko bat da, eta liderrek aurrean jarri beharko dute. Errepideak bihurtuak dira, eta eguraldia ere erabakigarria izan daiteke», azaldu zuten etaparen antolatzaileek aurkezpenean.

Martxoaren 17an bukatuko da Itzaiere haur eskolan izena emateko epea

TTIPI-TTAPA

Hurrengo ikasturterako izena emateko epea, aldiz, martxoaren 6an, astelehena ireki zuten, eta datorren ostiralera arte, hilaren 17ra bitartean egonen da irekia. Horretarako, aldeztu aurretik ordua hartu beharko da Itzairera bertara deituta.

Hurrengo ikasturterako izena emateko epea, aldiz, martxoaren 6an, astelehena ireki zuten, eta datorren ostiralera arte, hilaren 17ra bitartean egonen da irekia. Horretarako, aldeztu aurretik ordua hartu beharko da Itzairera bertara deituta.

Ekitaldiz beteta dator martxoko kultur agenda

Asteburuan Aurrera Dantza Taldeak 'Arrotzetik' izeneko dantza emanaldia berezia egingen du

TTIPI-TTAPA

Zinemaz, antzerkiaz eta dantzaz gozatzeko aukera izanen dute leitzarrek martxoan Herri Aretotan.

Asteburu honetan, martxoaren 10ean eta 11n dantza ikuskizuna izanen da. Aurrera Dantza Taldeak *Arrotzetik* izeneko ikuskizun berezia sortu du, eta, ostiralean eta larunbatean egingen dute 20:30ean. Sarrerak Maimurren daude salgai 5 eurotan. Igan-dean, aldiz, Madrilgo Teatro en Vilo konpainiak *Hoy pudeser mi gran noche* antzerkia egingen du 19:00etan. Martxoaren 8aren bueltako ekitaldietako bat izanen da. Sarrerak leitzak.eus atarian erosi daitezke. Online zazpi euroko prezioa dute, eta leihatilan erosten dutenek zortzi euro ordaindu beharko dituzte.

Martxoaren 15ean eta 16an, aldiz, musikaren txanda izanen da. Aralar musika eskolako ikasleen entzunaldiak izanen dira. Asteazkenean, hilaren 15ean 17:30ean izanen da, eta ostegunean, hilaren 16an 17:00etan.

Hilabeteko hirugarren asteburuan zinema izanen da protagonista. Martxoaren 18an eta 19an, 16:30ean Laburbira zirkuituko film laburrak ematen dituzte, eta 19:00etako saioak *Almas en pena* pelikula. Sarrerak leihatilan edo online eros daitezke.

Martxoko ekitaldiekin bukatzeko, martxoaren 25ean, larunbata Aralar Musika Eskolak antolatuta, *Kasumitarrak* antzerki musikatu egingen dute 11:30ean. Gonbidapenak info@aralar.org helbidean eskatu behar dira.

EH Bilduk hauteskundeei begirako udal batzarra egingen du martxoaren 21ean

TTIPI-TTAPA

Maiatzean egitekoak diren udal hauteskundeetan atarian, Leitzako EH Bilduk udal hauteskundeetan aurkeztuko duen herri programa osatu nahi du herritarren parte-hartzearekin.

Horretarako, bi saio antolatu dituzte, lehena martxoaren 7an, asteartea, egitekoa zuten eta bigarrena hilaren 21ean, asteartea, izanen da, Leitzako Herri Aretotan. 19:00etan hasiko da saioa, eta ordu eta erdiko iraupena izanen du.

Lehenengo saioan, azken agintaldiko balorazioa partekatzekotan ziren eta, lortutakoa, lortze bidean dagoena eta lortzeke geratu dena aztertu asmo zituzten.

Bigarren saioan, aldiz, lehen saioan egindako baloraziotik abiatuz, berratarutakoek proposamenak egiteko aukera izanen dute. Bigarren saio horretan jasotako proposamenekin osatuko du ondoren Leitzako EH Bilduk hurrengo agintaldirako aurkeztuko duen herri programa.

Ederki joan dira inauteriak beste urte batez

Inoiz baino mozorro gehiago bildu dira aurten eskean ateratzeko; 85 lagun guztira

TTIPI-TTAPA

Gaztetxoek zahagi dantzarekin hasi ziren Goizuetako inauteriak otsailaren 19an. Ondotik dantzaldia izan zuten eta gauean mozorroak afaltzeko bildu ziren.

Astelehen eta asteartean, urtero bezala, egun handiak izan ziren. Astelehenean mozorroak baserrietara irten ziren, baina lehenik plazan elkartu ziren dantzatzeko eta orain arteko markak hautsi zituzten: 85 mozorro bildu ziren guztira. Herrian, berriz, kaleak apainduta kaldereroen

desfile ederra izan zen goizean eta bazkariaren ondotik haur eta gaztetxoek txokolatada eta dantzaldia izan zuten.

Asteartean, berriz, mozorroak herriko etxeetan barrena ibili ziren goizez eta bazkaria egin zuten gero. Arratsaldean zahagi dantza egiteko txanda izan zen, Motzaretik hasita. Eguna borobiltzeko dantzaldia eta mozorroen afaria izan zuten.

Larunbatean bukatu zen ospakizuna, mozorroen bazkariarekin eta Igandea txarangaren emanaldiarekin.



FELIX LOIARTE

Alize Sagardui Kirol Jokoetan txapeldun

Umore Onako bi neskek jokatu dute Nafarroako Kirol Jokoetan finala. Kimu mailan Alize Sagardui txapeldun izan da 18-14 emaitzarekin eta 2. Kadete mailan Aritz Legarretak bigarren postua lortu du. Zorionak!



IGOR ELIZEGI

Goizutrail mendi lasterketaren 8. edizioa maiatzaren 20an egingen da

TTIPI-TTAPA

Hasi dira dagoeneko Goizutrail lasterketa antolatzen eta aurreneko hiru modalitate izanen ditu: 25 kilometroko luzea, hamar kilometroko motza eta 25 kilometroko ibilbidea bikoteka. Horretarako bi ibilbide prestatu dituzte Goizueta-

ko mendietan, eta herrian hasi eta bukatuko dira biak. Neurketa ez dago homologatua.

Izen-ematea zabalik da dagoeneko herrikrosa.eus atarian. Ibilbide motza egiteko gutxienez 16 urte eta luzea egiteko 18 urte edo gehiago beharko dira.

Gizarte Zerbitzuen lokala udaletxean da otsailetik aurrera

TTIPI-TTAPA

Orain arte Santa Maria auzoan zegoen Gizarte Zerbitzuen egoitza, baina hemendik aurrera udaletxeko bigarren solairuan izanen da. Betiko ordutegi eta egunetan ariko dira, hau da, asteartetan eta astezkenetan emango dute zerbitzua

gizarte langile eta hezitzaileek. Harrera eta autonomia, gizarteratzea eta haur eta familia alorra bezalako gaiak landuko dituzte.

Bertaratu nahi dutenentzako gomendagarria da alde zuzenetik hitzordua hartzea 948 51 08 40 telefonora deituz.

Labaienera mendi irteera antolatu du Arainburuk martxoaren 11n

TTIPI-TTAPA

Arainburu Umore Ona mendi taldeak ateraldia antolatu du Azpeitiko Lagun Onak taldearekin batera martxoaren 11n. 08:00etan abiatuko dira herriko plazatik eta 23 kilometroko ibilbidea egingen dute Labaieneraino, sei ordu inguruko

itzulia. Buelta 16:00ak aldera egitea aurreikusi dute. Bakoi-tzak bere hamaiketako eta bazkaria eraman beharko du.

Izen-ematea martxoaren 8an bukatu zen eta jende kopuruaren arabera erabakiko dute itzulera autobusean egin edo autoak antolatuz.

Panpanoziri aldizkariko lantaldea berritu nahi dute

Martxoaren 14an, 17:00etan egingo dute bilera udaletxean eta interesa duten herritarrei bertaratzeko deia luzatu nahi diete

ENERITZ IRAOLA

Aresoarrentzat sari, heldu da Panpanoziri izenburupean 2011ko abenduan kaleratu zuten aurreneko Panpanoziri aldizkaria. Orduan, besteak beste, Casilda Irazustari egin-dako elkarrizketa, Aresoko euskara edo garai bateko Aresori buruzko artikulak eta herriko irudiak ageri ziren. Geroztik, bi urtetik behin argitaratu dute herriko kontuak, zaharrak eta berriak, biltzen dituen aldizkaria. Aurtengoa, zazpigarren alea izango da eta erreleboa eman eta lantaldea berritzeko momentu egokia dela pentsatu dute.

Martxoaren 14an bilera

Martxoaren 14an, arratsaldeko bostetan, udaletxean egingo dute aurtengo aldizkaria prestatzen hasteko lehenbiziko bilera. Horregatik, inoiz baino gehiago, interesa duten herritarrek animatu eta parte hartzera gonbidatu nahi dituzte.

Orain arte, bospasei herritarrek osatutako taldea aritu izan da elkarrizketa eta erre-



Lehenbiziko zenbakiko azala.

portajeak egin, argazkiak bildu, denbora-pasak prestatu... eta euskara teknikariarekin batera aldizkaria osatzen. Asko dira landu dituzten gaiak: adinekoren ahotik entzundako istorioak, iragana eta oraina alderatzen dituzten kontu eta argazkiak, sokatira taldeari buruzkoak, Lagunarteko festa eta abenturak, eskolaren ehun urteek emandakoak... eta oraindik ere bada zer konstatua.

Festa batzordea hasi da festak antolatzen

Otsailaren 23an egin zuen festa batzordeak festak antolatzeko aurreneko bilera. Egunen antolaketa eta musika-taldeei buruz aritu ziren. Bileran gehiago antolatzen joango dira eta herritarrek beraien ekarpenak egitera animatu nahi dituzte.

'Hitz egin zutaz' tailerra udaletxean martxoaren 24an

Eneritz Mujika Zuasti dietistak *Hitz egin zutaz* izenburupean gainpisu emozionalari buruzko tailerra emango du martxoaren 24an, ostiralean 18:00etatik 20:00etara udaletxean. Parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da eta 25 euroko kostua du.



ESKOLAK UTZIA

Iruretagoienarekin itsasoko sekretuak

LH-ko ikasleak itsasoa gaia lantzen ari dira eta bertako sekretuak ongi ezagutzen dituen Garikoitz Iruretagoienaren bisita izan zuten eskolan. Urpeko arrantza du afizio eta apnea estatikoan Espainiako txapelduna da. Ikasleek azalpenak entzun eta hainbat galdera egin zizkieten.



ESKOLAK UTZIA

Aileen Ripa eskubaloi jokalariairekin

Kirolean emakumezko erreferenteak sortzeko kanpainaren baitan, Beti Onak eskubaloi taldeko Aileen Ripa etorri zen eskolara otsailaren 17an. Jardunaldia borobiltzeko ateraldia antolatu dute martxoaren 11n, Donostian jokatu den Bera Bera-Beti Onak taldeen arteko eskubaloi partida ikustera.

Villabonako Dantzari Txiki Eguna doaz herriko dantzariak martxoaren 18an

ENERITZ IRAOLA

Villabonako (Gipuzkoa) dantzari txiki eguna ospatuko dute martxoaren 18an eta bertan parte hartzera gonbidatu dituzte Aresoko dantza ikasleak. Goizean, eguraldiak ahalbidetzen badu kalejiran ibiliko dira herrian zehar eta 13:00ak

aldera emanaldia izango da Errebote plazan.

Hain zuzen, Villabonako Oinkari dantza taldeak hartu du aurten herriko dantza ikas-taroaren ardura eta hogeita sei umek, bi taldetan banatuta, asteazkenero izaten dituzte klaseak.

Harrobia haunditu nahi dutela salatu dute almandoztarrek

Jakinarazi dutenez, proiektuak ez lituzke segurtasun distantziak mantenduko kanposantuarekin eta bertze azpiegiturekin

TTIPI-TTAPA

Pello Sarratea Almandozko alkateak azaldu duenez, «harrobiaren enpresak meategia haunditu nahi du, kanposantuaaren perimetra eta bertze hainbat elementu errespetatu gabe». Hori dela eta, Nafarroako Arartekoarekin harremanetan jarri ziren eta errekerimendu bat egin zioten Nafarroako Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari. Orain departamentuaren erantzuna hartu dute; aitzinera segitzea erabaki dute. Herria ez dago erantzunarekin konforme, hortaz, alegazioak aurkeztu dituzte proiektuaren kontra zenbait arrazoi emanez.

Hasteko, Baztango Udalak proiektua onartu izana gezurtatu dute: «enpresa sustatzailerak proiektua udalari aurkeztu ziola eta honek onartu zuela dio. Baina Batzar Orokorra, lur komunalen gaineko eskumena duen erakundea, lur okupazioaren eta proiektuaren kontra agertu zen 2020an. Gaur arte, udalak ez du iritzia aldaketarik adierazi».

Kanposantua

Honez gain, «proiektuak ez luke kanposantuaaren eremua errespetatuko. Enpresak ez du kanposantua eta bertako gorputegia eraikintzat hartzen, nahiz eta *eraikin* hitzaren definizioa eta legeak ezartzen duena bete. Iraingarria da gorpuen biltegia zakurren kasetatik batekin edo tresnak gordetzeko etxola batekin parekatzea. Horrek aunitz haserretu gaitu».

Kanposantuaaren izaera publiko eta iraunkorra «ezin daiteke zalantzan paratu; 1945etik zerbitzu publiko bat eskaintzen du, Nafarroako udalerriek derrigorrez eman behar dutena». Gainera, «leku erlijiosoa da eta bertan daude lurperatuak herritarren arbasoak. Gure hildakoei errespetua eta deskantsatzeko leku duina merezi dute».

Meatzen legediaren arabera, «harrobiak azpiegitura eta zerbitzu hauetatik 40 metroko distantzia minimoa mantendu behar dute, leherketa, bi-brazio eta lur-jausiek sor ditzaketen kalteak ekiditeko.



Almandozko harrobia eta kanposantua. ONDIKOL

Jarduera hauek eraikin eta zubiak kaltetzen badituzte, arrailak eta pitzadurak sortuko lituzkete hilerri, hilobi eta gorputegian ere. Herritarrek urte osoan bisitatzen dute kanposantua; zer nolako segurtasun eta duintasuna izanen dute?».

Askak eta iturburuak

Proiektuaren eremuak ez luke legeak ezarritako 100 metroko distantzia mantenduko zenbait aska, iturburu eta kanalizazioekin. «Departamentuak dio IDENAn (Nafarroako Datu Espazialen Azpiegitura) ez dutela batere aurkitu, baina baditugu bertan erregistratuak ez dauden azpiegiturak, adibidez, herriko ur hoditeria». Gainera, «departamentuaren erranetan, ez da hauen kokalekuaren edo existentziaren frogarik aurkeztu, baina errekerimenduan argi utzi genuen asken eta iturburuaren kokalekua eta harrobiarekiko distantzia».

Aldatz-Larraungo harrobiaren kasua

Honez gain, «herriaren arabera irizpideen desberdintasuna» salatu dute: «joan den astean komunikabideetan ikusi genuen Aldatz-Larraunen ez dutela harrobia haunditze proiektua onartu kamioiak herrikit pasatzen direlako. Gure kontura irri egiten ari direla dirudi, herri batean ez dute proiektua onartu astean 30 kamioi pasatzen direlako, eta Almandozen, egun bakarrean aunitzez gehiago pasatzen direla, proiektuarekin aitzinera segitu nahi dute».

Azkenik, Sarrateak adierazi du «harrobia haunditzeko baimena ahoz eman digutela, baina ez zaigu dokumentu ofizialik ailegatu. Horregatik, atea irekita utzi nahi dugu departamentuak iritzi aldatu eta gure hitza errespetatzeko». Alegazioak eginda, departamentuaren erantzunaren esperoan gelditu dira almandoztarrek.

TTikiei entzunez eta behatuz, elkarrekin hazi

AURREMATRIKULA
Martxoaren 6tik 17ra haur eskolan.
Ordutegia: 09:00-12:00.

ATE IREKI PERTSONALIZATUAK
Hitzordua hartzeko deitu konpromisorik gabe 667 80 83 95 zenbakira.

BAZTAN UDAL HAUR ESCOLA
Amezti 16. 31700 ELIZONDO. NAFARROA.
haureskola@baztan.eus





Ikasleek diseinatu eta egin dituzte bizikletak elkarlanean. LANBIDE ESKOLA

Bizikletak Cabo Verdeko emakumeendako

Elizondoko Lanbide Eskolak CABEME (Cabo Verdeko Emakumeak) proiektua landu du 2022/23 ikasturtean

TTIPI-TTAPA

Lehenengo mailako Elementu Metalikoen Fabrikazioko eta Bulegoko Informatikako ikasleek, Ayuda Contenedores GKEarekin elkarlanean, Afrikako herrialdeari laguntzeko proiektua abiatu dute. Azaldu dutenez, bertako emakumeek buru-zareetan eramanen dituzte arrain freskoak portutik herrira egunero hainbat kilometro eginez. Ikasleek elkarlanean bizikleta batzuk egin dituzte, gibleko parrillan hozkailu kuxan arrainak eraman ahal izateko. Otsailaren 18an erabat hornitutako lau bizikletak ikas-

tetxetik Cabo Verdera abiatu ziren kontenedorean.

Honekin, Cabeme proiektuari akabera eman diote; «esperientzia arras aberasgarria izan da eta hainbat aspektu landu ditugu: elkartasuna, elkarlana, talde zein irakasleen arteko harremana, kontzientziazioa, komunikazioa, koordinazioa... bertze kontinente, kultura eta ideologiako ikasleen eskola ohiturak ezagutu ditugu ikasle eta irakasleok. Gure eskerrik handienak laguntza eman diguten pertsona, enpresa, komunikabide eta entitate guztiei».



ARITZ ELIZEGI

Inauteriak bikain Gartzainen

Eguraldi onarekin eta giro hobeagoarekin, ederki pasatu zituzten gartzaindarrek aurten inauteriak. Mozorro dibertigarriekin eta musikaz alaituak ibili ziren gazteak herriko karriketan. Heldu den urteko inauterien esperoan daude dagoeneko!



IZASKUN ALMANDOZ

Lekarozen ere giro ezin hobe

Herriko gazteen erranetan, «inauteriak besta bereziak dira lekaroztarrondako, eta aurten ere arras ongi pasatu dugu. Bi egunez etxetik ibili gara eskean, giro ezin hobean. Mila esker etxeko atea ireki dizkiguzuen herritar guztiei!».

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harriian.com www.harriian.com

HARRI LAN, S.L.
BIZIKLETAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Martxoan ere hainbat ekitaldi agendarako

Baztango Udalak eta eragileek agenda kultural zabala prestatu dute hilabete honetarako

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 9an 'Lodifobia eta estetikaren esklabotza' solasaldia emanen du Mijo Lizaraburu ekintzaile feminista eta lodi-aktibistak. Baztango Berdintasun Batzordeak antolatua, Arizkunenean 18:30ean izanen da mintzaldia.

Martxoaren 12an, igandea, bailableak izanen dira Elizondoko plazan 12:30ean. Muxikoak, jotak eta larrain-dantzak dantzatzeko aukera izanen da. Euria eginez gero, Braulio Iriarte pilotalekura mugituko dute.

Martxoaren 14an, berriz, Baztan Ikastolak antolatutako 'Beldurra? Zure ondoan nago' solasaldia izanen da 17:00etan Arizkunenean. Alvaro Beñaran psikomotrizista eta pedagogoa izanen da hizlaria eta beldurra haurren garapenean duen eragina izanen du solasgai. Plaza mugatuak izanen ditu eta alde zuzenetik aurretik izena eman beharko da, idazkaritza@baztanikas-tola.eus helbidera idatziz edo 948 45 24 48 telefonora deituz.

Irurritako Zinema Zikloarekin segitzeko, **hilaren 17an Ainarak** dokumentala proiektatu dute martxoaren 17an 19:00etan Gizarte Bilgunean. Anne Etchegoyen abeslariaren eskutik, 1870 eta 1940 bitartean Pirinioetatik Maulera milaka emakume nafar eta aragoiarrek egindako bidea kontatzen du filmak.

Baztan Kantuz ekimena Erratzun izanen da **martxoaren 19an**. Musika zaleek 12:00etan plazan izanen dute hitzordua.

Martxoaren 20an komiki eta nobela grafikoen irakurle taldea Baztango Liburutegi Publikoan bilduko da Adur Larrea komikigilearekin 19:00etan.

Hilaren 30ean Naizen elkarteak haur eta gazteen transexualitateari buruzko 'Ez da nire gorputza, zure begirada baizik' solasaldia emanen du Arizkunenean 18:30ean, Baztango Berdintasun Batzordeak antolatua.

Azkenik, Baztango artisau eta nekazariak azokak eginen dituzten **martxoaren 11n, 18an eta 25ean** Elizondoko plazan.



GARBIÑE AGERRE

Almandozen giro ederra inauterietan

Beti bezala, baserrietan hasi zituzten inauteriak moztaroei eta musikaz lagunduak, eta herriko karriketan ere ez zituzten irriak falta. Etkez etxe kantuz eta janariak probatuz pasatu zuten eguna, eta eskerrak eman dizkiete ateak ireki dizkieten herritarrei.



MIREN BALLARENA

Irurritako inauterietan umore ona nagusi

Eguraldi eta giro onean ospatu zituzten iruritarrek aurtengo inauteriak otsailaren 17an eta 18an. Jendetza bildu zen etkez etxe eskean egindako ibilbidean eta baita gauean egindako afarrietan ere. Orain moztarrok hurrengo urtera arte gorde beharko dituzte.

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortzen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

Eltzeta, 20
31770 LESAKA
T. 948638077



Herrigunean eginen den proiektuaren diseinua. NAFARROAKO GOBERNUA

Oronozko Lanbide eskolako proiektuaren idazketa esleitua

Peralta Ayuesa SLP enpresak 435.600 euroren truke idatziko du proiektua. Eraikuntza lanak urte akabailean hasiko dituzte

KAZETARIIZENX GERTAERALEKUAX Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Peralta Ayuesa SLP enpresari esleitu dio Oronoz-Mugairiko Lanbide Heziketako etorkizuneko ikastetxeko obrak burutzeko eta zuzentzeko proiektuaren idazketa, 435.600 eurotan, BEZa barne. Proiektua idazteko epea lau hilabetekoa da.

Aurreikuspenen arabera, eraikinak 18 milioi euro inguruko kostua izanen du eta bertze 4 milioi inguru behar dira ekipamendua ezartzeko. Obrak 2023. urtearen akabailan edo 2024. urtearen hasieran has daitezke, eta 30 hilabete inguruko epea izanen dute lanak egiteko.

600 ikaslerendako lekua izanen du ikastetxe berriak eta gainera, enplegu formakuntzako 6.000 ordu eskaintzeko baliabidea izanen ditu. Otsailaren 24an egin zuten bisita Oronoz-Mugairira Carlos Gimeno, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko kontseilariak eta Nafarroako Gobernuak hainbat agintaririk, baita Joseba Oton-

do Baztango alkateak eta zenbait zinegotzik eta Jorge Oteiza Oronoz-Mugairiko alkateak ere. Gainera, Iñigo Gorrotxategi eta Igor Arruabarrena, Elizondoko Lanbide Eskolako eta Berako Toki Ona institutu zuzendariak ere bertan izan ziren. Gaur egun, Lanbide Heziketa egiten duten 213 ikasle dituzte Elizondon eta 65 Beran. Ikastetxeak hartuko duen orubea ikusi ondotik, Oronoz-Mugairiko herriko etxera joan ziren proiektuari buruzko azalpen teknikoak ematera.

Eraikinaren diseinua

Ia energia kontsumorik gabeko eraikina izanen da, moduluak antolatua. Denera 9.370 metro koadroko azalera eraikia izanen du, hiru solairutan banatua. Beheko solairuak 4.475 metro koadro hartuko ditu, lehen solairuak 3.060 metro koadro eta bigarren solairuak 1.835 metro koadro. Eraikinaren gibleko aldean, ibaiari begira, agroekologia ikasketak hartuko dituen aire libreko eremua diseinatu da, baita aisialdirako gunea ere.



MIKEL LIZARDI

Arizkungo inauteriak arrakastatsuak

Giro ederrean joan dira aurten ere Arizkungo inauteriak, eguraldia lagun zutela. Igandean eta astelehenean eskean ibili ziren, lehenik baserrietan eta ilunabar aldera herriko etxeetan. Asteartean desfilea izan zuten, sagar dantzariak irekia, eta gero hartzaren eta moztaroen txanda izan zen.

Harat eta Nuei taldeak martxoan Txokoto tabernan

Hilabeteko honetako eskaintza kulturalaren barnean, Elizondoko Txokoto tabernak bi kontzertu antolatu ditu; hilaren 10ean 22:30ean Harat talde beratarra izanen da eta martxoaren 24an 22:30ean Zaragozako Nuei band. Biak debalde izanen dira.

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)



Bixente Hirigarai, Joseba Otondo, Betti Bidart eta Kristina Urrutia. ONDIKOL

Baztango eta Baigorriko gazteen arteko topaketa

Bi udalek 12-15 urte bitarteko gazteendako topaketa antolatu dute Amaiurren apirilaren 14tik 16ra

TTIPI-TTAPA

Baztango eta Baigorriko Udalek bi herrietako gazteen arteko topaketa antolatu dute *Atzoko, gaurko eta biharko sareak* izenburupean. 12-15 urte bitarteko gazteak trukaketa egonaldi batean parte hartzera gonbidatu dituzte, apirilaren 14tik 16ra Amaiurko aterpetxean. Egonaldia debalde da eta parte hartu nahi dutenek 689 03 50 78 telefonora deituz edo *gizarte-zerbitzua@baztan.eus* helbidera idatziz eman dezakete izena. Eginen dituzten jardueren artean, mendi ibilaldia, dokumental baten emanaldia, ginkana eta denbora-pasako jokoak daude.

Otsailaren 22an prentsa agerraldia egin zuten bi udalerrietako ordezkariak Baztango Balleko Etxeko sabaian. Joseba Otondo, Baztango alkateak, Betti Bidart, Baigorriko zinegotziak, Kristina Urrutia, Baztango euskara teknikariak eta Bixente Hirigarai, Baigorriko animazioko langileak hartu zuten parte.

Otondok nabarmendu zue-
nez, «historian gibelatzen egin

behar dabi ibarren arteko lehen harremanak hautemateko: abere hazkuntzaren inguruan, gerletako errefuxiatuen testuinguruan, kontrabandoari lotuak, elkarten trukaketak... Hauek Baztan eta Baigorri elkarren artean lotu izan dituzte, eta nahiz eta azken hamarkadetan harremana pixka batean galdu, azken aldian berreskuratzeko helburuarekin elkarlanean ari gara».

Bidart bi herrien arteko harremana berriz estutzearen alde agertu zen, «Baztanekin lotura estua izan dugu aspalditik, horren erakusle, Baigorri inguruko bizilagunen erdiak kasik Baztanen haurrideak dituela». Urrutiak azaldu zuen Baigorriko Herriko Etxetik ailegatu zela proposamena, eta Baztango Udalean arras ongi hartu zuten ekimena. Elkarlanean hasi ziren eta udaleko zenbait zerbitzuek parte hartu dute antolatzen.

Helburu nagusiak gazteek elkar ezagutzea eta memoria historikoaren lanketa dira. Oraingoz, «erantzun arras positiboa» izan du ekimenak gazteen artean.



ONDIKOL

Umorerik ez da faltatu Erratzun

Otsaileko hirugarren igande, astelehen eta asteartean herriko gazteak etxez etxe eta baserrietan barna ibili ziren eskean. Astearte arratsaldean, berriz, desfilea izan zuten herriko karriketan, eta ospakizuna borobiltzeko, Hauspolarien dantzaldiak eman zien akabaila aurtengo inauteriei.



ANE GOIENETXE

Giro ederra Amaiurko inauterietan

Otsailaren 17an eta 18an inauteriak ospatu zituzten Amaiurren ere, eguraldia lagun zutela. Adierazi dutenez, «urteroko legez, giro ona ez da faltatu herriko baserri eta etxeetan. Mila esker zuen etxeko ateak ireki dizkiguzuen herritar guztiei!».



Puxke biltzearekin hasi zituzten inauteriak herriko gazteek. [UTZITAKOA](#)



Gipsy Kingsen musika emanaldi ederra izan zen larunbatean. [ONDIKOL](#)

Elizondoko inauteriek irudi ederrak utzi dituzte

Antolatzaileek balorazio «arras ona» egin dute, «dena ongi atera zen, arazorik gabe»

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 17an eta 18an ospatu zituzten inauteriak Elizondon. Beñat Verde antolatzaile eta herriko gazteak azaldu duenez, «ortziralean hasi genuen ospakizuna gazteek puxke biltzearekin. 60 bat lagun bildu ginen 08:30ean gaztetxean; lau sagar dantzari, lau moztorro beltz, lau moztorro xuri, hiru zaku, sagar banatzaile bat eta gainerakoak zirtzilek. Sagar dantzaren azkeneko entsegu egin, bi suziri bota eta Andrea eta Goiatz trikitilarien laguntzarekin Txokoto aldera abiatu ginen. Hangosaldugenuen, barrideek gonbidatuta».

«Txokototik goitiko ikastolara eta haur eskolara joan ginen, eta gero plazara, eskolako haurrak han zeudelako. Elizondoko Eskolako guraso elkarteak txistorra pintxoak egin zituzten denendako eta sagar dantza egin genuen. Baztanberri, Saskaitz eta Paularena auzoetan ibili ondotik 18:00etan plazara ailegatu ginen. Han azkeneko sagar dantza eta zortzikoa dantzatu genituen eta Jantzilo erre ge-

nuen. Eskertzekoa da herritar aunitzek laguntzeko erakutsi zuten gogoia».

Arratsaldean herriko haurrek desfilea egin zuten plazaraino eta bertan txokolatada eta dantzaldia izan zituzten. Ilunabarrean, berriz, danbor soinuak izan ziren nagusi herriko karriketan eta ostatuz ostatu pintxoak hartuz, giro ederra izan zuten elizondoa-rrrek danborradan.

Larunbatean, berriz, orgen desfilea izan zen Santiago karrikan: musikari eta abeslariak, taxistak, kirolariak, pitonidak, mariatxiak, ezkonberriak, animaliak, ogroak, poliziak... Elizondoko karrak musikaz, kolorez eta giro onez bete zituzten goiz osoan. Ondotik, kuadrillek bazkariak egin zituzten. Besta ez zen hor akitu, izan ere, «azpimarratzekoa azken urteko berrikuntza nagusia; larunbat arratsaldeko dantzaldia. AiZer DJ bikotea izan zen plazan eta sekulako harrera izan zuen, giro ederra paratuz. Hiru orduz egon behar baziren ere, hain gustura ginen gauerdira arte luzatu zutela besta atsedenik gabe».



Ezkonberri gazte batzuk herriko karriketan barna ibili ziren. [VALLEDEBAZTAN.COM](#)



Curling jokariak ederki aritu ziren. [VALLEDEBAZTAN.COM](#)



Txokoto Bitxen eguraldi onaz gozatzeko aukera izan zuten. [ONDIKOL](#)



Lanean aritu ondotik, ongi merezitako hamaiketakoa. MARIFA ETA KORO

Elizargietan eta elizako dorrean malobra egin dute

1784. urteko Malastako hilobia argitara atera dute otsailaren 25ean egindako lanean

MARIFA ETA KORO

Otsailaren 25ean malobra polita egin zuten Elizargietan eta elizako dorrean. Joan den urtean lan haundia egin zen, aspaldiko partez egin beharrekoa, eta ondorioz aurtengoa errexagoa izan da. Jendea eta denbora nahiko bazenez, horretaz gain, Eskoletzeko eta Apezaren etxeko baratzetako sasiak garbitzeko ere baliatu zuten goiza. Elizargietan lur azpian gorderik gelditua zen hilobi bat ere agerian utzi zuten, Malastakoa aldi honetan, 1784. urtekoa. Iaz Goiburukoa eta Narkonekoa atera zituzten.



Malastako hilobia argitara emana.



Gazteak gustura ibili ziren baserriz baserri. MARIFA ETA KORO

Usadio eta kanta zaharrak atxikiz ospatu dituzte ihauteriak gazteek eta haurrek

MARIFA ETA KORO

Behin ere bezala, aurtun lau egun ihauteri izan ditugu. Gazteak larunbatean eta igandean ibili ziren etxez etxe eta baserriz baserri, eta haurrek astelehenean eta asteartean egin zuten itzulia.

Denak kontent eta umorez ibili baziren ere, haurrena aipatzekoa da, beraiek etxez etxe kantatzen baitzuten aspaldiko eskaera: “Ihaute-ihauter, zingarra ta arroltze, bat edo bertze, biak edo bat, biak edo bat”, eta horren ondotik “Bat-bihiru-lau...” kanta.

Ongi da usadio zaharrak atxikitzea.



Haurrek ere ederki ospatu zuten.

Mendiko suteen miseria

Ihauterietako ospakizunak baino lehen, mendiko suteen miseria jasan behar izan dugu berriz ere. Otsailaren erdi aldean hiru sute izan genituen,

horietako bi Arleun eta Azkarreko magaletan, eta hirugarrena errota aldean.

Ez du iduri kalte haundirik izan denik, baina, edozein maneratan, pena da gure bazterrak kiskailtzen ikustea.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kanttonberri, 1 | BERA
☎ T. 948 631 218
✉ joxemi@kateabike.com
🌐 www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MBSI MERIDA
BERGAMONT BH COLUER LOOK



Montxo
DATETHEA • ERREBEGIA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

📍 Aguler karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
☎ +34 848 85 00 21
✉ info@asadormontxo.com

Zugarramurdiko leizeak iazko lekuri bisitatuenen artean

134.529 bisitari izan zituzten joan den urtean eta 45.145 lagun sartu ziren Sorginen Museoan

TTIPI-TTAPA ZUGARRAMURDI

Mikel Irujo, Nafarroako Gobernuko, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak eta Maitena Ezkurtari Turismoko, Merkataritzako eta Kontsumoko zuzendari nagusiak azaldu dituzte Nafarroako Turismo Behotokiak iaz sektore osoak izandako portaerari buruz bildutako datuak. Datu horien arabera, monitorizatutako baliabide turistiko nagusietako bisitari kopururik handiena Erriberriko errege-erreginen jauregiak hartu zuen, 226.732 lagun

guztira (2021ean baino %30,8 gehiago). **Zugarramurdiko leizeak, berriz, 134.529 bisitari hartu zituzten** (% 1,4 gehiago).

Eskualdeko bertze erakargarri nagusietako batek, **Bertizko Parke Naturalak 68.730 bisitari hartu zituen iaz**, 2021ean baino % 4,7 guttiago. **Zugarramurdiko Sorginen Museoak, berriz, 45.145 bisitari izan zituen** (%4 gehiago).

Bertizko turismo bulegoan 36.619 bisitari izan ziren joan den urtean, 2021ean baino % 15,7 gehiago.

Sua izan da Arleun eta Ibanteli mendietan baina ez da herrira ailegatu

ARANTXA ETA IRAIA URDAZUBI

Otsaila ihauteri giroan pasa bada ere, izan du bere alderdi iluna ere. Arleun eta Ibanteli mendietan sua piztu zen eta hainbat lekutatik ikus zitezkeen sugarak. Zorionez, sua kontrolpean izan zuten eta ez zen herriraino ailegatu.



Sutea Arleunen. NAFARROAKO GOBERNUA



ARANTXA ETA IRAIA

Ihauteriak giro ezin hobean

Aurtengo ihauteriak ere giro ezin hobean pasa dira herrian. Hiru egunez, haur, gazte eta ez hain gazteak mozorrotu, etxez etxeko eskean ibili eta dantzaldian dantzan aritu ondotik, ailegatu da egun hauen bukaera. Jadanik heldu den urteko ihauterien esperoan dira herritarrak!

LANDA
Haurtzaindegia

ZATOTZ GU EZAGUTZERA!

Juan Aguirre, 1 | URDAZUBI | T. (0034) 693 76 49 49
info.landa03@gmail.com

BISITA GIDATUAK
Aldez aurretik deitu behar da hitzordua hartzeko

AURREMATRIKULA
Martxoaren 1etik 15era

ORDUTEGI TABALA
FAMILIEN BEHARRETARA EGOKITZEN GARA
URTE OSOAN IREKIA

Gure ttikien garapena bermatzen dugu,
bakoitzaren erritmoa errespetatuz,
inguru seguru eta goxo bat eskeiniz.



Santa Izpiritu parropiako bilkura. GANEX

Larrungo parropiako bazkarian 115 lagun elkartu ziren

Santa Izpiritu parropiak Azkaine, Senpere eta Sara barne hartzen ditu, eta jende ainitzek borondatez laguntzen die

GANEX

Larrungo Santa Izpiritu parropiak Azkaine, Senpere eta Sara, hiru herri horiek barne dira. Cachenautez apezak Azkainen eta Elizagarai erretoreak Senperen, bi apez horiek egiten dituzte hiru herrietako misione guziak, baina ez dira bakarrik, herri bakoitzean borondatezko jende ainitz baitituzte, eta beharrik, bertzenaz ez baitzituzten egiten ahalko bakarrik misione guziak. Jende horri eskerrak emateko, otsailaren 17an, ortziralez, arratseko zazpietan, Sarako Lur Berri gelan mahai eder bat

(jateko eta edateko) eskaini die denei parropiak. 115 bat lagun bildu ziren. Elizagarai erretoreak denei eskerrak eman zizkien, «beharrik hori zaretene gu laguntzeko eta biba zuek». Dena izugarritzko umore onean bukatu da.

Eskuen lana

Eskuen lana artista eta esku-langileen elkarteak erakusketak eginen du martxoaren 19an, igandez, 10:00etatik 18:00ak arte Lur Berri gelan. Sarrera urrik izanen da, eta gauza ederrak izanen dira ikusteko eta erosteko.



GANEX

Umore onean joan dira ihauteriak

Larunbatean gazteria ibili zen auzoetan eta arratsean Plekan gau pasa. Igandean, haurrek eta helduek mozturoriturik egin zituzten gauza politak jendez betetako plazan, musikariaren soinuekin. Ondotik zantzar erre zuten alegrian. Gero, 200 bat lagun Lur Berri gelarat joan ziren bazkaltzerat.


Tripotx bazkaria egin dute erretretatuak otsailaren 25ean Lur Berri gelan

85 erretretatuak tripotx bazkaria izan dute otsailaren 25ean, Haragitegiko Tristan eta Mariane Sagek ederki prestatua eta herriko kontseiluko hamar hautetsik bero-bero zerbitzatua. Bazkaria ongi pasatu da, euskaldun kanta batzuk emanez. Battite Laborde auzape-

zak ongi etorria eman die. Beti Gazteko lehendakariak, bere taldearen partez eskerrak eman dizkie hautetsi guziei eta orai bezala segitzea galdetu du. Sukaldariak ere eskertu dituzte eta arratsaldean, estomaka ongi bete zutela, denak etxe aldera joan dira.



Erretretatuak ederki tripotx bazkarian. GANEX



Idiart, Elhorga eta Jauregui elgarrekin. JL BESSONART

Bi itzulietan irabaziz Bernard Elhorga da auzapez berria

Ehun bozen aldearekin nagusitu zitzaion Jauregiuren Hats Berri, eta 886 bozetan gelditu zen Idiarten zerrenda

JL BESSONART

Bernard Elhorgaren Agir pour St Pée zerrendak irabazi ditu herriko hauteskundeak, bigarren itzulian 1.333 bozekin Christophe Jauregiuren Hats Berri listak, aldiz, 1.233. Orain arte auzapez zen Dominique Idiarten Elgarrekin Senpererentzat zerrendak 886 boz eskuratu ditu. Orogen buru, irabazleek izanen dituzte 21 hautetsi, Hats Berri bortz eta Elgarrekin Senpererentzat taldeak hiru. Elhorga jauna sortzez Senpertarra da, haatik Paris inguruan eraman du bere bizitza, berriz herrira itzuli



Elhorga auzapeza.

aitzin. Politikan esperientzari ez izanik, bertze alderdiekin elkarlana eraman nahi duela adierazi du. Ea aitzinetik finkatu proiektuetan, zeinek izanen duten lehentasuna.

Musika, joaldun, zigante, zirtzil eta auzi artean bikain joan da ihauteri eguna

JL BESSONART

Aro goxo eta iguzkitsuarekin iragan da ihauteri eguna, otsailaren 18an, neguari bizkarra emanez udaberria aldarrikatuz. Egitarau mamitsua izanik, aipa genezake Guk taldearen emanaldia bazkarian. 70. hamarkadan abiatu ziren kantuz *Euskalduna naiz* eta kantu zelebrearekin, urtez-urte ohol-tza partekatu dute euskal artista anitzekin. Zigante, joaldun, tzirtzil eta publiko mo-zorrotua, bildu dira pilota plazan, SanPantzarren auzia entzuteko. Aurten ere sutara kondenatua izan da gure nahi-gabe eta makur guzien arduradun izanagatik. Animazio aldetik, Andoni Oilokiegik gailurra lortu du. Publikoak, lorietan, ongi erantzun die kantuei. Gauean, helduek etxeko bidea hartu ondoan,



SanPantzarren auzia.



Ziganteak plazan.

gazteek dantza eta musikaz gozatu dira beranta arte.

'Bleu Nuit' antzerkia emanen dute Larrekon martxoaren 25ean

JL BESSONART

Zoritzarrez, Kalakan taldearen kontzertua ezeztatua izan zen, iduriz perkusio jotzaile baten eskasagatik. Halere, hainbat kultur ekitaldi izan dira egunotan. Aitzinera begira, **mar-txoaren 25ean** (20:30) Larreko salan, *Bleu Nuit* (gau urdi-

na) antzerkia frantsesez aurkeztuko dute. Bi emazteen amodioak sortuko dituen oztopoak azalduko dituzte emanaldian. Herriko Etxea antolatzaile, erreserbak Euskal Herriko turismo bulegoetan. Prezioa 16 euro eta murriztua 10 euro.



Kontraleihoak | Leihoak aluminio eta PVC
Itxidurak | Berandak | Toldoak
Barandak | Persianak

T. 00 34 948 630 962 - H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com
www.irekileihoak.com





Errekek antolatutao 21. pilota txapelketako txapeldun eta finalistak, antolatzaileekin batera. ANGEL SALABERRIA

Malerrekako 21. pilota txapelketako finalak jokatuak

Elite mailako finalean, Beñat Apezetxea goizuetarrak eta Lizeaga irabazi zieten Ugaitz Elizalde iturendarrari eta Iruritari

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Doneztebeko Erreka elkarteak antolatutako Malerrekako XXI. eskuz binakako pilota txapelketako finalak otsailaren 18an jokatu zituzten Donezteben eta Lesakan. Elite mailako finalean, Errekako Beñat Apezetxea goizuetarrak txapela lortu zuen Lizeagarekin, Zugarraldeko Ugaitz Elizalde iturendarrari eta Iruritari irabazita. Bertze txapel batzuk ere eskualdean gelditu ziren. Kategoria ttikienetako partidak Lesakan jokatu zituzten:

Neskak infantilak: Sunbillako Nahia Bertiz Babaze (Erreka)



Lizeaga, Apezetxea eta Salaberria.

eta Aranburu (Lapke) 17 – Lopez (Ataun) eta Sotil (Larraun) 18.

Mutilak benjaminak: Goñi eta Zubieta (Bortziriak) 10 – Ripa (Txaruta) eta Mauleon (Oberena) 18.

Mutilak kimuak: Telletxea eta Igoa (Bortziriak) 18 – Arrieta (Lagunak) eta Etxegarai (Bortziriak) 12.

Mutilak infantilak: Landa eta Munduate (Lapke) 04 – Etxaniz (Oteiza) eta Arsuaga (Ilunpe) 18.

Eta nagusienak Donezteben aritu ziren.

Mutilak kadeteak: Ramirez (Kurene) eta Meabe (Zaratamo) 22 – Salaberria eta Salaberria (Irurtzun) 04.

Mutilak juveniak: Sarasibar eta Santesteban (Oberena) 22 – Sanchez (Oberena) eta Agesta (Erreka) 14.

Mutilak seniorrak: Lakabe eta Peñalver (Paz Ziganda) 20 – Ariztegi (Oberena) eta Erle (Lapke) 22.

Mutilak elite maila: Apezetxea (Erreka) eta Lizeaga (Mundarro) 22 – Elizalde (Zugarralde) eta Irurita (Oberena) 14.



Lehen edizioako irteera

Iruritako III. Mendi Duatloia maiatzaren 7an egingen dute

TTIPI-TTAPA IRURITA

2018an eta 2019an egin zuten Iruritako Mendi Duatloia, baina azken hiru urteetan ez dute antolatzerik izan. Aurtun, Iruritako Mendi Duatloiak hirugarren edizioa izanen du, maiatzaren 7an, Iruritako gazteek, Iruritako herriak eta Baztango udalak antolatua.

Mendi bizikletan 19,75 kilometro egin beharko dituzte txirrindulariek, 640 metroko desnibelarekin eta lasterka egin beharreko zatia zortzi kilometro eta erdikoa da, 290 metroko desnibelarekin. Dagoeneko izena emateko aukera zabalik da www.kirolprobak.com webgunean. Proba bana-ka nahiz binaka erreleboka egiteko aukera bada. *Info +* www.kirolprobak.com

Mendialdeko 4. pilota txapelkeko finalak otsailaren 24an jokatu dituzte Goizuetan

Sein: Lujanbio-Larralde (Umorre Ona), 18; Azpiroz-Azpiroz (Aurrera), 15

3. kimuak: Seges-Elizegi (Umorre Ona), 18; Aranberri (UO)-Leikuona (Larraun), 5

2. kimuak: Zurutuza-Apezetxea (Umorre Ona), 18; Ezeiza eta Gorostidi (Araxes), 14

1. kimuak: Olaetxea-Zabaleta (Aurrera), 18 – Goikoetxea eta Legarra (Larraun), 9

2. haurrak: Zabala (Hernani) eta Gurrutxaga (Aurrera), 9 – Iriarte eta Etxepare (Larraun), 18

1. haurrak: Ijurko eta Balda (L), 18 – Oreja eta Sotil (L), 11



Goizuetan jokaturako finalerako protagonistak sariekin. UTZITAKOA



Beti Gazteko emakumeak txapeldun eta gizonezkoak txapeldunorde. POTRONKO

Beti Gazte mundialera doa Euskal Herrian nagusi izan ondotik

Euskal Herriko gizonezkoen eta emakumezkoen ia txapel guztiak irabazi ditu eta Ipar Irlandan izanen da asteburuan

AITOR AROTZENA LESAKA

Hau idazterakoan txapelketa mistoa jokatzekoa baldin bazen ere (martxoaren 5ean Ibarran), guttienez Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketak zazpi kategorietatik bortzetan (gizonezkoen 680, 640, 600 eta 560 eta emakumeen 540 eta 500 kilo-koetan) txapela jantzita ekinen dio munduko sokatira txapelketari Lesakako Beti Gazte taldeak. Azkeneko txapelak otsailaren 25ean Laukizen (Bizkaia) izan zituzten jokoan. Gizonezkoak pisu arinean aritu ziren, 560 kilotan, eta Beti Gaztek lehenbiziko tiraldiak galdu zituen Gaztedi, etxeko taldearen kontra. Txapeldunorde izan ziren lesakarrak. Emakumeak ere pisu arinean aritu ziren, 500 kilotan, eta txapeldun suertatu ziren. Irantzu Goienetxe, Karmele Pikabea, Udane Arbelaiz, Ane Gurrutxaga, Ainhoa Etxegarai, Maddalen Lopez, Ainhoa Ubieta eta Maria Iantzi aritu ziren tiran, Ander Mitxelena entrenatzaile zutela. Honela, Munduko txapelketan Euskal Herria ordezkatzeko eskubidea




Beti Gazteko emakumeak tiran.

irabazi zuten Beti Gazteko emakumeek pisu arinean ere.

Munduko txapelketa

Asteburu honetan jokatu da Ipar Irlandan munduko txapelketa eta Beti Gaztek, klub arteko txapelketako bortz kategoriatan lehiatzeaz gain (gizonezkoen 560 eta 600 kilo, emakumeen 500 eta 540 kilo eta mistoa), nazioartekoan Euskal Herria ordezkatzeko eskubidea ere ongi irabazi du. Amaiurrek ez du talderik eramanen Ipar Irlandara, baina hala ere, taldekide batzuk Berriozar, Antsoain eta Beti Gazteko tiralariekin batera ere ariko dira, batez ere gazte eta 23 urtez beheetiko kategorietako lehiaketetan.



Unai Iantzi, Asier Gamio eta Ainhoa Etxegarai. UTZITAKOA

Ainhoa Etxegarai eta Unai Iantzi Euskal Herriko txapeldun koxkor biltzen

TTIPI-TTAPA

Emakumezkoen eta gizonezkoen Euskal Herriko Koxkor Biltze Txapelketak jokatu zituzten otsailaren 19an Mungian (Bizkaia). Ainhoa Etxegarai beratarrak emakumezkoen txapela etxeratu zuen eta Unai Iantzi aniztarrak gizonezkoena. Biak Nafarroako irabazi zuten iaz. Asier Gamio berroetarra bosgarren postuan gelditu zen.

Ainhoa Etxegarai beratarrak 7 minutu eta zazpi segundotan bukatu zituen lanak, eta hamaika segundoko alde atera zion bigarren gelditu zen

Ainhoa Iraizoz. Amaia Jimenez hirugarren izan zen (7.47) eta Amaia Mendiñeta laugarren (9.18)

Unai Iantzi aniztarrak, berriz, sei minutu azpitik osatu zuen lana, bortz minutu eta 50 segundotan. Jon Vegas bigarren sailkatuak, berriz, sei minutu eta 40 segundo behar izan zituen lanak bukatzeko eta Jon Larrañaga izan zen hirugarren (6.42). Aritz Iturribarria izan zen laugarren (6.50) eta Asier Gamio berroetarra, berriz, bosgarren (6.53). Ondotik sailkatu ziren Iraitz Ferreira (6.58) eta Unai Ardeo (7.44).

Igantzin jokatu dute Nafarroako Herri Kirol Jokoen finala apirilaren 2an

TTIPI-TTAPA IGANTZI

Bortz jardunaldi izanen dituzte aurtengo Nafarroako Herri Kirol Jokoen. Hain zuzen, martxoaren 5ean, Atarrabian izan dute lehenbizikoa; martxoaren 12an Olaztin, martxoaren 19an Antsoainen, martxoaren 26an Etxarri Arnatzen eta bosgarren jardunaldia eta finala Igantzin izanen da apirilaren 2an, 11:00etan hasita.

Eskualdeko taldeei dagokien, iaz bezala, Igantzik lau talde aurkeztu ditu –bi kimu mailako proba konbinatua eta

bana haur eta kadete mailako proba konbinatua– eta Basaburuak talde bana aurkeztu du kimu eta haur mailako proba konbinatuetan. Beraz, sokatirako lehian ez da eskualdeko talderik izanen.

Nafarroako Herri Kirol Federazioak Nafarroako Kirolaren Institutuarekin batera urtero antolatzen dituen Herri Kirol Joko hauetan hiru kategorietako neska-mutilek parte hartzen dute: kimu mailakoak (11-12 urte), haur mailakoak (13-14 urte) eta kadete mailakoak (15-16 urte).



ARANTZA Bortzirietako Emakumeen XXIII. Mendi Itzulia
Mendi buelta, hamaiketakoa Ekaitza elkartearen eskutik eta bazkaria Burlada jatetxean.
Plazatik abiatuta, martxoaren 12an, 09:00etan.

PROIEKZIOAK

IRURITA
'Ainarak' dokumentala
Gizarte Bilgunean, martxoaren 17an, 19:00etan.

LEITZA
Zinema
Herri Aretoan, martxoaren 18an eta 19an. 16:30ean 'Laburbira' eta 19:00etan 'Almas en pena'.

LESAKA
Haurrentzako zinema
Harriondoan, martxoaren 19an 16:30ean.

MUSIKA

ELIZONDO
Harat taldea
Txokoton, martxoaren 10ean, 22:30ean.

Bailableak
Plazan, martxoaren 12an, 12:30ean.

SUNBILLA
Zaria Koru Eskolaren emanaldia
Elizan, martxoaren 12an, 18:00etan.

LEITZA
Aralar Musika Eskolako emanaldiak
Herri Aretoan, martxoaren 15ean 17:30ean eta 16an 17:00etan.

ERRATZU
Baztan Kantuz
Plazan, martxoaren 19an, 12:00etan.

AZOKA

ELIZONDO
Baztango artisauak eta nekazariak
Plazan, martxoaren 11n, 18an eta 25ean, goizez.

LESAKA
Argitsuren artisau azoka
Beheko plazan, martxoaren 19an, 10:00etatik 14:00etara.

MENDI ITZULIAK

GOIZUETA
Mendi ateraldia Labaienera
Plazatik abiatuta, martxoaren 11n, 08:00etan.

ARANTZA
Bortzirietako Emakumeen XIII. Mendi Martxa
Plazatik abiatuta, martxoaren 12an, 09:00etan.

LESAKA
Lesakako Mendi Lasterketa
Martxoaren 12an.

IKUSKIZUNAK

LEITZA
'Arrotzetik'
Aurrera Dantza Taldea.
Herri Aretoan, martxoaren 10ean eta 11n, 20:30ean.

'Hoy puede ser mi gran noche' antzerkia
Herri Aretoan, martxoaren 12an, 19:00etan.

BERA
'Ganbara' antzerkia
Markeline konpainiaren eskutik.
Kultur etxean, martxoaren 18an, 19:00etan.

LESAKA
Tantirudantza jaialdia
Martxoaren 18an, 11:00etan hasita.

SOLASALDIAK

ELIZONDO
'Lodifobia eta estetikaren esklabotza'
Mijo Lizarbururekin.
Arizkunenean, martxoaren 9an, 18:30ean.

'Beldurra? Zure ondoan nago'
Alvaro Beñaranekin.
Arizkunenean, martxoaren 14an, 17:00etan.

LESAKA
'Kontuan hartu eta kontatzeko istorioak'
Literarteren eskutik.
Liburutegian, martxoaren 9an, 18:30ean.

'Elkar zainduz, zaintza eskubide kolektiborantz'
Emagin elkartearen eskutik.
Koskontako Bideko Aretoan, martxoaren 14an, 17:30ean.

IGANTZI
'Amatasunak feminismotik'
Parean elkartearen eskutik.
Udaleko goiko solairuan, martxoaren 17an, 18:00etan.

BERA
'Vuelta al País de Elcano' liburuaren aurkezpena
Ander Izagirrerekin.
Liburutegian, martxoaren 17an, 18:00etan.

Nire aukera

«Hemengo natura da, dudarik gabe, nire inspirazio-iturri nagusia»

MILAGROS ESTEBAN RODRIGUEZ ELIZONDOKO ARTISTA



«Elizondoko amatxi bat» da Mila Esteban, eta «familia eta lagunekin egotea, mendian ibiltzea, loreak zaintzea, irakurtzea eta margotzea» du zaletasun.

«Betitik» izan du gustuko pintura, eta duela 16-17 urte, «alabak etxetik joan zirenean», hasi zen klaseak hartzen: «Camino Eseverri-ekin joaten nintzen Arizkunenera. Gero, Tomas Sobrinorekin segitu nuen». Geroztik, «kurso batzuk egin izan ditut noizbehinka eta oraindik ere egiten ditut».

Inguruko paisaiak inspirazio

Irakaskuntzan lanean aritu izan da Esteban bizitza osoan; «38 urtez Elizondoko Eskola Publikoko irakasle izan nintzen eta arras gustura aritu nintzen». Bai-

na, aitortu duenez, «garai hartan zaila zen nire zaletasunetan aritzea denbora faltagatik». Orain jubilatua dagoela, berriz, «edozein gauzarako denbora daukat».

Batez ere paisaiak margotzea du gustuko; «normalean olio-pinturekin margotzen dut, espatulak lagunduta, baina azken boladan akrilikoekin margotzen ari naiz. Kasu honetan, disolbatzailea ura denez, arras gauza politak lortzen ahal dira. Arras entretenigarria da honekin jostatzea eta probak egitea». Hala ere,

«OLIO-PINTUREKIN ETA AKRILIKOEKIN EGITEN DUT LAN»

«bai olio-pinturekin eta baita akrilikoekin ere, primeran pasatzen dut».

Bere inspirazio-iturri nagusia argi du: «hemengo natura, dudarik gabe. Arbolak, landareak, loreak, hostoak... udaberrian, neguan eta udazkenean, batez ere». Naturaren koloreak «zoragarriak dira, eta urtaroaren arabera nola aldatzen diren ikustea harrigarria da».

Artelanak erakusteko nahia

Hainbat erakusketetan parte hartu du Estebanek bere lanekin: «Lehenbizikoa Sunbillako udaletxean izan zen. Ondotik, bizpahiru Arizkunenean, bertze horrenbertze Irunen eta aldi pare batez Bertizen. Baita behin Madril-en ere. Baina erakusketa kolektiboak izan dira beti, hau da, bertze margolari batzuekin batera».

Gaur egun erakusketa finkoa du ikusgai Elizondon: «Jaime Urrutia karrikan, 48. zenbakian, 'Mila-Ananda Erakusketa Zentroa' ireki nuen 2021ean Ana Anandarekin batera. Hainbertze urtez margotu ondotik, koadro pila bat biltzen ari ginen, eta pentsatu genuen hobe zela erakustea, etxean gordeta izatea baino. Eta, egia errateko, jende aunitz erakusleihatik begira gelditzen da pasatzean».

Begira gelditzen diren guzti horiei, «sartzeko erranen nieke; barnean aunitzez ere koadro gehiago ditugu eta gustura erakutsiko dizkiegu, baita edozein azalpen eman edo galdera erantzun».

«NATURAREN KOLOREAK ZORAGARRIAK DIRA»

Aitortu duenez, «kanpoko jendea problemarik gabe sartzten da, eta solas eta harreman interesgarriak sortzen dira. Baina eskualdekoek kanpotik ikustea nahia go dute. Uste dugu politagoa izanen litzatekeela barnera sartuko balira».

Taldean margotzen

Honez gain, behin baino gehiagotan 'Emozioak koloretan' erakusketa ireki izan du Arizkunenean, bertze hainbat emakumerekin batera: «Isabel Olondriz, Mari Puy Lukin, Blanca Jimenez, Ana Ananda Gonzalez eta bortzak Tomas Sobrinoren klaseetara joan ginen, eta zaletasun berdineko lagun taldea osatu genuen. Hortik sortu zen ideia, eta bizpahiru aldiz egin izan dugu erakusketa. Posible baldin badugu, etorkizunean gehiago izanen dira».

Hala ere, «nahiz eta denok elkarrekin margotu eta irakasle berbera izan, nork bere estilo propioa dauka; batek abstraktuta, bertze batzuk akuarelekin...». Beraz, mota eta estilo guzietako lanak ikusteko aukera ematen du erakusketak.

Tomas Sobrino artista elizondoa izan du irakasle eta erreferentzia; «inportantzia handia du niretako, taldearen lotura puntua da eta irakasteaz gain, artearen munduan sartzeko gaitu».

Estebani dagokionez, «ez diot etorkizunari begiratzen, gaurkoari baizik. Egiten dudanarekin arras gustura nago eta horrela segitzen badut, kontent».

«IRAKASLE BERBERA IZANDA ERE NORK BERE ESTILOA DAUKA»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

ORONÓZen edo **ELIZONDO**n lanean ari den neska batek epe luzerako apartamentua errentan hartu nahi du. ☎650 72 96 39.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI



ELIZONDO. Akullegi karrikan 150 m2-ko garajea salgai edo errentan emateko. Altura handia du eta zati batean tarteko solairua ere badu. Inguru lasaia eta eguzkitsua. ☎649 44 67 32.

BERTZELAKOAK

BERA. Ostatua traspasatzeko. ☎617 72 34 75.

LANA

ESKAINITZAK

SUNBILLA. Arratsaldetan adineko bat zaintzeko pertsona baten bila ari dira. ☎699 14 66 85.

LESAKA. Lindurren borda sagardotegian zerbitzari euskalduna behar dute asteburuetan aritzeko. ☎948 63 72 12.

SUNBILLA. Ariztigain kanpinean oinarritzeko sukaldaritza dakien sukaldari euskalduna behar dute lanaldi osoan aritzeko. Berehala lanean hasteko. ☎948 45 05 40.

BERA. Ibardingo Benta Gorrian sukaldari laguntzaile bat behar dute asteburuetan eguerdiko zerbitzuan lan egiteko. Interesatuak bidali curriculum *bentagorria@hotmail.com* helbidera edo deitu. ☎618 00 27 31.

ETXALAR. Etxalarko Bentan lanaldi osoan aritzeko esperientzia duen sukaldaria behar dute. Interesatuak bidali curriculum *info@etxalar.com* helbidera edo deitu. ☎948 63 50 00.

ETXALAR. Etxalarko Bentan lanaldi osoan aritzeko garbitzailea behar dute. Interesatuak bidali curriculum *info@etxalar.com* helbidera edo deitu. ☎948 63 50 00.

BERA. Ibardingo gasolindegian pertsona bat behar da lan egiteko. Interesatuak idatzi *imerira@hotmail.com* helbidera edo deitu ☎638 02 53 48.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)
TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

ESKARIAK

Neska bat prest interna gisa adineko jendea zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Ahal bada, Urdazubi edo Zugarramurdin. ☎658 53 32 48.

Emakume bat adinekoak eta haurrak zaintzen aritzeko. ☎603 43 41 11.

BERA. Esperientzia eta formakuntza duen emakumea adineko jendea zaintzeko lan bila ari da Beran. Goizez edo 16:00ak arte. Interesatuak deitu. ☎642 46 44 05.

Neska gaztea Beran edo Lesakan goiz eta arratsalde haurrak zaintzeko prest. ☎ 643 41 37 02.

DENETARIK

SALGAI

Etxe barnean ibiltzeko aulki gurpil-duna eta ohe artikulatua salgai. 1,05 metroko zabalera eta igogailuarekin. Interesatuak deitu. ☎618 96 26 11.



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.



Txokorako bankua salgai. Egoera onean. Neurriak: 251 cm luze x 210 cm zabal. Prezioa 150 euro. Apropoza txoko baterako. ☎660 58 86 05.




Look 695 karreterako bizikleta salgai. 2017 urtekoa, sram red (2020. urtekoa 500km-rekin) talde elektronikorekin. Taila 53. Aurreko desbistaile 200km-rekin. Ibiltzen ez delako saltzen da. Egoera ezin hobean. ☎661 84 50 53.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

ETXALAR. Txakurkumeak oparitzeko. Ama Labrador eta Border Collie arrazen nahasketa da eta aita Border Collie arrazakoa. ☎662 20 25 35.



Border Collie arrazako bi zakurkume oparitzeko. ☎609 48 60 52.

SALGAI

Hiru txerri eder saltzeko. Txerriak etxean jaioak eta haziak dira, kanpoan jaio eta kanpoan ibiltzen dira, naturak bere garaian ematen dietenarekin bizi dira. Deitu lasai. ☎636 02 23 11.



Spaniel breton arrazako bi zakurkume ar salgai. ☎661 57 71 21.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,31 €
- 1.koa 5,19 €
- 2.koa 5,07 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,42 €
- 1.koa 5,28 €
- 2.koa 5,17 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kana-lean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 150,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 140,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,20/5,30 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/8,80 €
- 8-10 kilokoak: 6,60/7,50 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 84 €

Zerri gizona 1,795 €

Zerramak 0,260€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua otsailaren 3tik 10era bitarteko prezioak.

Zakurkumeak salgai. Atta eta ama Border Collie arrazakoa. Ama lanean ona. ☎678 33 53 01.

DENAK

BERTIZARANA. Katakume ar baten bila. Norbaitek oparitzeko edukiz gero, gustura hartuko luke. ☎696 17 85 29.

MOTORRAK

SALGAI



Multivan furgoneta salgai, kanperizatua, bizikletak eramatekoa, toldoa, bola, bigarren bateria. 246.000 km. Deitu konpromisorik gabe! ☎609 92 68 95.

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

NISSAN TERRANO III
125CV. 3 ATE

SUZUKI VITARA 1.6
120CV

4x4

www.mendaurmotor.com


URTEBETETZEAK




Arraiozko **Iraia Mindegia Mortalena** etxeko sorgintxo alaiak pasa den otsailaren 13an lehendabiziko urtea bete zuen. Zorionak eta aunitz urtez, Iraia!!! Muxu haundi bat aitatxo-amatxoren, Enea ahizparen, aitatxi-amatxien, izeba-osaben eta zure lehengusuak diren Alaitz, Aitor, Irati eta Liherren partetik.



Zorionak **Fermin** zure urtebetetze egunean. Besarkada haundi bat Zerunetako familiaren partetik. Muxuak.



Eneko Ormart **Larratxeak** 4 urte bete ditu otsailaren 28an. Zorionak! Lau muxu potolo familia guztiaren partetik, bereziki Eider eta Enararen partetik.



Arraiozko **Luken Laurnagarai** **Perotxenak** 6 urte bete ditu martxoaren 8an. Zorionak Arraiozko eta Irurritako familiaren partez!



Arantzako **Intza Sorli Lizardik** martxoaren 8an 2 urte bete ditu. Zorionak gure ttikitxo!! Txokolatezko muxuak eta koloretako besarkadak zuretzako!!



Arantzako **Alazne Baleztena Goñik** 11 urte beteko ditu martxoaren 14an. Zorionak eta muxu bat familia guztiaren partetik.



Pagoa Iribarren **Elizalde** urroztarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 22an. Muxu aunitz gure printzesa ttikiari, familiaren eta bereziki



Otsailaren 28an 5 urte bete ditu **Mairer Narbarte** **Urroz** gure etxeko printzesa! Muxu haundi bat etxekoan partez eta bereziki



Aunitz urtez bikote! **Aitorrek** eta **Joxemak** urteak beteko dituzte martxoaren 16an. Ongi ospatu zuen eguna!



Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPA!!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

Bulegoan eta postaz

Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA helbidera etorrita edo bidalita.

Whatsappez 744 48 43 61 zenbakira idatzita.

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidade
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala
Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...

Hainbat euskarri
Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko

ttipi-ttapa

OROIGARRIA

Jose txo ARBURUA MIGELENA

Igantzin, 2023ko otsailaren 17an

Ez zaitugu ahantziko.



ZURE ILOBAK



BAZTAN
BIDASOA

Herentzia Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERA n San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBE n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU
365 EGUN

948 48 95 50

info@funerariabaztanbidasoa.com


Betiko taldea zu laguntzeko

URTEURRENA

Luis Agirre Irazoki 'Legarre'

1935/02/14 | 2023/02/17

*Legarreko
harriek
betirako
gordeko dute
zure goxotasuna.*



IZARRA

HERENTZIA ZURE ONDORRI
ARABIA ETXERAKO

Gure harria,
gure jendea,
gure sustraiak



TANATORIOAK

• ELIZONDO • BERA • DONEZTEBE
• ARANTZA • IGANTZI



24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

URTEURRENA

Asier ARANGUREN ERRAZKIN

Berrobi-Lesakan,
2021eko otsailaren 27an

Otsaila, otsoen hilabetea
guretzat, ahazteko hilabetea.

2021eko otsailaren 27an joan zinen
gure bihotzak triste eta ilun utzirik.

Zauden lekuan zaudela,
jakin ez zaitugula sekula ahaztuko.

Maite zaitugu

ETXEKOAK



IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara



948 63 74 04 / 948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

Herencias y Gestión



Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasygestion@gmail.com

URTEURRENA



URTEURRENA



URTEURRENA



URTEURRENA



HILBERRIAK

- **Jean Pierre Errandonea**, Sarakoa, otsailaren 2an, 82 urte zituela.
- **Romana Lertxundi Amondarain**, Lekarozkoa, otsailaren 16an.
- **Maria Jesus Larregi Irigoien**, Gartaingoa, otsailaren 16an.
- **Francisco Javier Igarzabal Elizalde**, Lesakakoa, otsailaren 16an, 64 urte zituela.
- **Josetxo Arburua Migelena**, Igantzikoa, otsailaren 17an, 82 urte zituela.
- **Luis Agirre Irazoki**, Berakoa, otsailaren 17an, 88 urte zituela.
- **Justa Ostolaza Egaña**, Iturengoa, otsailaren 17an, 74 urte zituela.
- **Bautista Iturriria Goñi**, Lekarozkoa, otsailaren 18an.
- **Maria Jesus Sagardui Buil**, Doneztebekoa, otsailaren 19an.
- **Santiago Albistur Apezetxea**, Goizuetakoa, otsailaren 20an, 88 urte zituela.
- **Pedro Erasun Telletxea**, Elizondokoa, otsailaren 21ean, 70 urte zituela.
- **Pilar Aranburu Agirre**, Senperekoa, otsailaren 24an, 80 urte zituela.
- **Antonio Irazoki Danboriena**, Lesakakoa, otsailaren 24an, 73 urte zituela.
- **Maria Jesus Perurena Onsalo**, Leitzakoa, otsailaren 27an, 92 urte zituela.
- **Maria Fermina Mikelarena Telletxea**, Doneztebekoa, otsailaren 28an.
- **Francisco Javier Fagoaga Telletxea**, Gartaingoa, otsailaren 28an.
- **Rosario Iraizoz Bertiz**, Sunbillakoa, otsailaren 28an.

OROIGARRIA



Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira




ZORIONAK!
Ainara Barberena Gamio!
824. aleko irabazlea zara!



PLAZAN BAZAN

DOMINOAN

Dekizunez, ilargiak zikloak osatzen ditu, eta horren arabera aldatzen zaio forma, Lurretik begiratuta. Osa ezazu dominoa, forma edo fase horiek kontuan hartuta.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiumi)

Plazan bazan egiteak SARIA BADU!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,
Ttipi-Ttapako Whatsapera: (0034) 774 48 43 61
zure izen abizenak jarrita.
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!


Laguntzalea:

ibaizabal



ITZALA

Lotu astronauta bakoitzari bere itzala.



SUDOKUA

Osa ezazu sudokua, ILGORA osatzen duten hizkiekin (I, L, G, O, R eta A). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Kaskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

824 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Isabel Ibarrola Manterola | DONEZTEBE

Onddo ta punto - Kamiseta bat
Virginia Etxenike Bikondoa | IRURITA

Bidasoil - 30 euroko deskontua
Manuel Agirre Agirre | BERA

Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Jesus Rodriguez Errandonea | IRUÑEA

BKZ Abentura - Sarrera bat
Jose Luis Eskudero Bengoetxea | ERATSUN

Taberna edariak - Eguzkilore bat
Esther Elizondo Lukanbio | ARANTZA

Izar Park - Sarrera bat
Arantxa Zubillaga Mariezkurrena | LEITZA

Airaka - Bi CD
Mª Rosario Rodriguez Dominguez | ELBETE

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Poltsa bat

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

EZKEXA

www.ezkexa.com



Kamiseta bat

ARKUPE

www.arkupegozotegia.com



Lote bat

KUKUKA HAUR ARROPA DENDA

Zazpigorutze, 1 | Doneztebe | Tel.: 948 45 02 52



Haurrendako lote bat

IZAR PARK

www.galaxypark.eus



Sarrera bat

**LI
BU
RU
AK**



Bi liburu



erein
ATZALDIA
www.erein.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.ikaselkar.eus



Zazpigorutze, 1 | Doneztebe | Tel.: 948 45 02 52